



LEZO 11









«Lezo» 11

1993.eko Irailak

Lege Gordailua: SS/550/93

I.S.B.N: 84-604-6453-9

Azalaren egilea: Lander Zurutuza

Fotokonposaketa eta Inprimaketa:

ANTZA Industrialdea 1-2

20160 Lasarte-Oria

AURKIBIDEA

— HITZAURREA..... 9

HISTORIA

1.- «Lezo Bigarren Karlistadaren garaian»
KARLOX BARRENTSORO 11

GIZARTEA

1.- «Un lezotarra internacional de profesión bailarín. Sabino Salaberria Elorza»
RAFA BANDRES 17

2.- «Lezoko I. Herri Olinpiada»
ZABARRE GAZTE TALDEA 22

3.- «Lezoko intsumisioaren egoera eta egin beharrak»
LEZOKO INTSUMISO BAT 26

4.- «Locos por la radio»
RAUL GIRALDES 29

5.- «Allerru Mendizale Taldea»
XAXIKO 31

KULTURA

1.- «Lezo aldizkariak bost urte bete»
LEZO ALDIZKARIA 33

2.- «Lezoarrak argazkitan: 1927 - 1936»
JOSE MIEL TREKU 36

3.- «Zabarre festa»
ZABARRE GAZTE TALDEA 50

4.- «Lau lezotar dantzarik, postu bikainak»
GARBIÑE OLAIZOLA 51

5.- «Zein arraio ote zen Joannes Etxeberri hori?»
IÑIGO ETXEBESTE..... 53

EKOLOGIA

- 1.- «Nolako Jaizkibel nahi dugu?»
LEZOKO EKOLOGI TALDEA 55
- 2.- «Zenbat denbora behar dute usteltzen?»
LEZOKO EKOLOGI TALDEA 59

SAIOAK

- 1.- «Hizkeraz mesedez!!»
JOSE LUIS AGIRRETXE 63
- 2.- «Lezoko Allerru mendi taldea: 1893-1993»
MIKEL SUSPERREGI 69

LITERATURA

● PROSA


- 1.- «Bizkaia es un bello jardin»
ANTONIO MARI 75
- 2.- «Allerruko amonak sua piztu du!!»
KARLOX BARRENTSORO 77
- 3.- «Erregearen alaba eta dragoia»
AMAIA LEUNDA 80

● BERTSOLARITZA

- 1.- «Poeta izan nahi»
XANTI ZABALA 81
- 2.- «Juan Joxe Sarasolak jarriyak»
"KOSTAKO TRUMYOAREN BERTSUAK (Bertsolariya (1932))" 82

● ERITZI ARTIKULOAK

- «LEZO ALDIZKARI BURUZKO INKESTA»



H I T Z A U R R E A

Lezo 1988- 1993: Bost urte, bi ale urtean, guztira hamar eta esku artean duzun honekin hamaika. Hamaika ale eta hamaika kontu LEZO aldizkariaren orriotan.

Ez gara hemen hortaz mintzaten hasiko baina txalo ozen bat eskatuko genizueke. Nori jo txaloak? Norentzat izango dira ba! Zuentzat, aldizkari hau aurrera ateratzeko paperean tinta eta izerdia isuri duzuenontzat. Herri txikia da Lezo baina, ze arraio, aldizkari haundia dugu!


Ondo izan!



Lezo 1988-1993: Cinco años, dos número al año, en total diez y con este que tienes entre manos once. Once números e innumerables temas en estas páginas de la revista LEZO.

No vamos a tratar de ello aquí, pero nos gustaría pedirnos un sonoro aplauso. ¿A quién aplaudir? A quién va a ser! A vosotras y vosotros que para sacar esta revista adelante habeis derramado tinta y sudores en el papel. Lezo es un pueblo pequeño, pero, qué demonios!, tiene una gran revista!

Hasta la vista.




LEZO BIGARREN KARLISTADAREN GARAIAN

Lehenengo karlistadaren arrastoak oraindik bizi bizirik zeudela, piztu egin zen gerra berria, eta berriz euskal mutilak fusila hartuta, mendietara itzuli ziren Don Karlos eta Euskal Herriko libertateak defenditzeko gertu. 1.870. urtean gaude, eta Lezo oso herri karlista izanik, eta lehenengo gudatean egin zuen bezalaxe, borrokarako prestatzen ari zen. Gazteak prest zeuden, eta baserria, lurrak, familia utzita karlista agintarien menpean ipini ziren. Ez da Lezon karlista bandora semeren bat bidali gabe gelditu zen sendia. Herria laister gazterik gabe gelditu zen. Hauxe zela eta Donostian zegoen espainiar gobernadoreak oso ekintza gogorak antolatu zituen matxinatuak lagundu egiten zituzten herrien kontra, eta ondorioz Lezoko herriak berehala sumatu ahal izan zuen errepresioa bere kale eta etxeetan.


1.- GERRAREN GORA-BEHERAK LEZOKO HERRIAN

Egoera beroa, arriskutsua,... Lezon, Gipuzkoan eta Euskal Herri osoan garai hartan suertatzen zena. Gudateak aurrera jarraitzen zuen eta berarekin batera gure herrietako bizimodua. Lezon aldameneko herri gehienetan bezala, alkatetza liberal edo zurien eskutan zegoen, eta nahiz eta herriaren nahia eta gogoak oso bestekoak izan, agintaritzak Madrilko Gobernuaren lagun eta jarraitzaile zirenen eskupean segitzen zuen. Hala ere zenbaitetan herritarren sentimentuak gainezkatzen ziren



Ez da Lezon, Karlista bandora semeren bat bidali gabe gelditu zen familia.

(Lezo Zaharra Lander Zurutuzaren marrazkiaren arabera)



Gauzak aldatzen dira egunero, eta horrela lehen karlisten eskuetan zegoena orain Madrileko gobernuaren jarraitzaileenetan.

eta agerian azaltzen ziren. Esate baterako, 1.870.ko abuztuaren 20an, Antonio Etxegarai, Frantzisko Garin eta Migel Urdaniburu, Beheko Plaza zegoen tabernan muturra ondo berotu ondoren, kalera atera eta "GORA KARLOS VIIA" eta "HIL BEDI SERRANO" oihuka hasi ziren. Dakigunez, multa ez zen gehiegi luzatu, eta Lezoko Artxibategiko agiri batetan azaltzen denez, galanta gainera.

Gerra oso gaizki hasi zen karlistentzako, eta horregatik altzamendua galdurik zegoela sinistuz, asko eta asko izan ziren bere udal agintariei indultorik eskatu zietenak. Horixe da 1.870.ko irailaren 20an Migel Antonio Salaberria Agirre matxinatu lezoarrak garaian alkate zen Andres Arretxeri eskatu ziona: barkazioa, eta baita alkateak eman ere. Baina denboraren poderioz egoera okertu zen liberalentzako, eta hasiera batean makurtzeko eta barkazioa eskatzeko beharrea aurkitu zirenek, eta hauen artean Migel Antonio Salaberria, armak hartu zituzten berriro karlista kausaren alde borrokatzeko pronto.

1.872.ko apirilaren 22an, Gipuzkoako Gobernadoreak eskutitz bat bidali egin zion Lezoko alkateari bertako matxinatu guztien izen-abizenak eskatuz. Holako eskutitzak errepikatu ziren hurrengo hilabeteetan, baina alperrik gobernadoreak apenas ezin bait zuen Donostiatik irten, aldameneko herriak karlisten eskuetan bait zeuden.

Gauzak aldatzen dira egunero, eta horrela lehen karlisten eskuetan zegoena orain Madrileko Gobernuaren jarraitzaileenetan, eta atzo Donostiako Gobernadorearen atza-



*Darietaberri
gotorlekutik
liberalek Errenteria
eta Lezo
bonbardeatu
zituzten.*

parretatik urruti eta libre zegoena gaur bere menpean izuti eta preso, horrela bait dira gudatearen gora-behera. Eta Lezo lehen gobernuaren arlotik kanpo edo erdi kanpo gelditzen bazen orain berriro bere agintapean. 1.873.ko urtarrilaren 13an, Joxe Mari Olai-zola, Joxe Mari Lopetegi, Frantzisko Salaberria, Joxe Iñazio Garmendia eta Joxe Mari Lizarazu lezoarrak preso eraman zituzten Donostiara karlisten aldekoak zirela argudiatuz. Otsailaren 9rako danak kalean zeuden Olai-zola ezik. Azken hau juizio baten zai utzi omen zuten hiru akusazio hauek leporatzen zizkiotelarik: 1) Boluntario liberalen buruzagi bat desarmatzen saiatzea; 2) kalean ozenki "GORA KARLOS VII.a" oihukatzea, eta 3) Jaiz-kibel mendian karlistentzako ziren armak ezkuturik edukitzea. Egia esateko ez dakigu ezer gehiagorik Olai-zolaz, baina garaiko ohitura ezagutuz, ez dut uste afusilaketatik libratuko zenik.

Geroxeago euskal karlistak gerra galtzen zihoazten neurrian, txapeltxuriek arroturik, detentzio eta errepresio bideari ekin zioten gogor eta estu. Eta honela gertatu zen Lezon baita ere, asko eta asko deteniturik eta etxe eta ondasunez errequisaturik izan zirelarik.

Politika errepresibo honen barruan zenbait bataio agiri eskatu egin zioten herriko erre-toreari, beraien artean Santa Krutz apaizaren partidakoa omen zen OILARRA izengoiti-koarena.

2.- DARIETAKO GOTORLEKUA

Bestaldetik, bazegoen Lezon fortifikazio edo gotorleku bat Darieta Berri izeneko baserrian kokaturik, leku hau arrentz estrategikoa izanik, Erreterria eta Lezo ongi menpe-
ratzen zirelarik. Ez dakigu zein urtetan eraiki egin zen, baina dirudienez lehenengo albisteak
1.874. urtetik datozkigu. Gotorleku hau beti egon zen liberalen eskuetan beren interesak
defenditzeko zerabilkitelarik. 1.874.ko abuztuaren hasieran bertatik Erreterria bonbar-
deatu zuten, eta hilabete beraren 25an inguruan zebiltzaten zenbait karlisten kontra jaurtiki
izan zituzten kainonazo batzu, hauetako batzu Lezoko kale eta etxeetan erori zirenak.


1.875.ko urtearen hasieran gotorlekua konpondu egin zen Erreterriako Komandantzi
Militarraren aginduari jarraituz. Esteban Etxebeste izan zen obretako maisua eta Joxe Mari
Errezola perittoa. Dirudienez zabaltze lanak zirela eta Darieta Berri baserria goitik behera
botatzeko beharrean aurkitu ziren garaian bere nagusia zen Fuljentzia Iturraldi indem-
nizazioa ordaindu ondoren.

Badirudi Lezon bazeudela garai hartan bestelako fortifikazioak, esate baterako Santo
Kristoren basilikan zegoen fortina, eta Lezo Haundia izeneko etxea gordetzen zutenak.

Gudatea ez zen amaitzen, eta ondorioak egunero ikus zitezkeen. 1.874ko abenduaren
4an Frantzisko Artola lezoar karlista detenitu eta Donostiara eraman zuten epaitu zezaten.
1.875.ko azaroaren 10ean eta 11ean, oso borrokaldi gogorrak izan ziren Lezon bi tal-
dekoen artean. Baina alperrik gerra ordurako guztiz galdua bait zegoen karlistentzako.

3.- GERRA GALTZEAREN ONDORIO TRIXTEAK LEZON

1.875.eko bigarren erditik aurrera karlistek ez dute zer egiterik, gerra zeharo galduta
bait zegoen. Enbargaek, errepresioa, kartzelamenduak, odol jarioa,... etengabeki errepi-
katzen zirenez gero galtzaileek bide bat edo bestea hartu behar izan zuten; edo Ameriketara
alde egin etorkizun hobeto baten bila, lurra, familia eta dana utzita, edo burua makurtu
eta indultoa eskatu irabazleei. Zehazkizun askorik ez dugu Lezotik trantze honetan Ame-
riketara abiatu ziren karlistetaz, baina bai bertako udaletxean indultoa eskatu zutenetaz.
Eta honela 1.875ko ekainaren 3an dataturik dagoen agiri batetan irakur dezakegunez, ba
omen zeuden ordurako berrogei ta bat lezoar indultaturik, horietako izen batzu hemen
jarraian datozenak direlarik: Joxe Mari Aiestaran, Benito Garmendia, Frantzisko Salabe-



1.875.eko azaroaren 10ean eta 11ean oso borrokaldi gogorrak izan ziren Lezon bi taldekoen
artean.



1.875.eko bigarren erditik aurrera karlistek ez dute zer egiterik, gerra zeharo galduta bait zegoen.



Karlista galtzaileei bi bide geratu zitzaizkien aukeran: edo Ameriketara alde egitea edo burua makurtu eta indulto eskatu irabazleei.


rria, Joxe Salaberria, Martzial Legorburu, Iñazio Gaztelumendi, Manuel Iartza, Frantzisko Iartza, Migel Urdaniburu, Joxe Manuel Larrea, Joan Mari Iartzabal, Joxe Manuel Lopetegi, Iñazio Olasagasti, Bixente Ibargoien, Nikolas Aranburu, Joxe Irigoien, Domingo Zapirain, Joxe Garmendia, Bixente Lizarazu, Ramon Lizartza, Joxe Aranburu, Kristobal Larreta, Bixente Lopetegi Garmendia, Joxe Mari Aizpurua, Joxe Arana, Manuel Aiestaran, Joxe Antonio Legorburu, Martzial Gaztelu, Benito Legorburu, Ramon Irazu, Andres Iretxalalleta, Joan Kruz Olaizola, Joan Mari Urzelaieta, Isidro San Sebastian, Luis Olaizola Salaberria, Jesus Ibarguren eta Joxe Ibarguren.

Bukatzeko aipatu beharra dago ere galtzaileen zenbait etxe eta ondasun enbargaturik eta subasta publikoan saldurik izan zirela, beraien artean Patxillaborda, Borda, Babilonia, Lopene eta Sagasti baserriak egon zirelarik.

KARLOS BARRENTSORO

Erabilitako iturriak:

- 1.- Lezoko Udal Artxibategia
- 2.- KARLOS ETXEZURIETA.- "Lezo herriaren ikuspegi sozio-ekonomiko-historikoa". (LEZO), 1.984




UN LEZOTARRA INTERNACIONAL, DE PROFESION BAILARIN: Sabino Salaverria Elorza

Desde hace tres años nos veníamos cruzando varias veces con una persona que nos recordaba a alguien y siempre nos asaltaba la curiosidad de preguntarle quién era, pero ante la duda de equivocarnos, seguimos así hasta los pasados carnavales, concretamente el día 23 de febrero, martes, día del entierro de la sardina, al estar sin gafas y disfrazado, se me hizo más conocido y circunstancialmente al mantener ese día una ajustada conversación en el Bar Merche de la Calle Vicente Elícegui de Rentería, sin decirle nada quedé más convencido de la duda que me asaltaba de que se trataba de un lezotarra al que hacia años no veíamos.

Días más tarde en el Bar Sauca, le dije si era Sabino Salaverria, me dijo que sí, y desde entonces quedamos para otro día, para que me contara su historial, porque lo creemos interesante, un historial

que comenzó en Lezo, en años de racionamiento, igual que la de otros lezotarras de su edad, con las mismas necesidades e inquietudes, y desde donde Sabino comienza su andadura, su profesión, en este caso por su inclinación por la danza... que le hace recorrer diversos escenarios...

Pero, comencemos a explicar su historial desde su nacimiento: Nació en Lezo, el 3 de Julio de 1.943, en Arrobi-kua, Carretera de Gaintxurizketa. El padre lezotarra de naci-



Sabino Salaverria en una foto reciente.

*Sabino Salaverria
ha formado parte
del ballet de
conocidos
artistas.*



miento, Jose Manuel, trabajador en Aserraderos Acha de Lezo, y la madre, Juana, natural de Azkoitia, trabajó alternando sus labores de casa, en MEIPI. Sabino era el cuarto de los cinco hijos, la quinta fue la única mujer de la prole...

Su primera escuela fue junto a su casa, las clases que daba particularmente Arantza Berasarte, hasta los ocho años, edad con la que comenzó a coger lombrices de mar para una señora de Donosti que las vendía en el portal de su vivienda en el Puerto donostiarra, junto a la Iglesia; también vendía sacos de serrín y leña de Aserraderos Acha y repartía pan a primeras horas de la mañana, todo esto sin dejar de acudir por las tardes a las clases escolares de Arantza Berasarte.

Así estuvo unos seis años, hasta los 14, a los que entró a trabajar en Chapas de Okume de Lezo, donde trabajaba de seis de la mañana a seis de la tarde. Al año de estar trabajando, con 15 y 16 años, después de las seis de la tarde, tras asearse en casa salía corriendo con el bocadillo en la mano a Donosti, a la calle Easo, actualmente, entonces de Victor Pradera, a unas clases de danza Clásica que daba el maestro D. José Uruñuela, en el Conservatorio de San Sebastián. En esas clases Sabino fue un alumno aventajado, así como otro alumno de Donosti los cuales fueron contratados en 1.960 por el Ballet Clásico del Teatro de la Opera de Helsinki para actuar en la Opera "ROSE MARIE" dirigida por Klaus Salin y Rita



SEVILLANAS

LUNES Y MIERCOLES

ADULTOS 11 a 12
20 a 21

NIÑOS 18 a 19

DANZA ESPAÑOLA

LUNES Y MIERCOLES

De 19 a 20

GIMNASIA

MARTES Y JUEVES

De 11 a 12

TANGO

MARTES Y JUEVES

De 12 a 13



CENTRO CULTURAL SANTIAGO PEREZ
AA. VV. DE LA COLONIA OBRERA

C/ Celindas, 13 - 28016 MADRID

INFORMACION: 403 37 17 - 764 38 08 - 763 34 98. (De 14 a 16 y 22 a 24).

*Una vida
dedicada
a la danza*

Waninen, realizando una gira de seis meses por Francia, Alemania y Dinamarca, finalizado el contrato regresó a Lezo...

Al no encontrar trabajo como ballet clásico, del 61 al 63 estuvo estudiando danza clásica en Donosti en la Academia de Milagros Escudero, actuando con su grupo de Academia como primer bailarín en varios festivales y Salas de Fiestas de Euskadi Norte y Sur.

Estando con Milagros Escudero vino a Donosti el ballet de Antonio, en el que Sabino y otro compañero realizaron una audición de selección que pasaron con aprobación, llevándoles a Madrid donde estrenaron en el Teatro de la Zarzuela la obra de "ETERNA CASTILLA". Con Antonio estuvo casi un año, ya que en 1.964, tuvo que regresar a Lezo para realizar el servicio militar, al llegar a casa se encuentra con la sorpresa de que al no haber cupo, le dejaron hasta la próxima quinta, aunque les valió el tiempo de su quinta, por lo que sólo estuvo en el cuarte de Ventas de Irún, de mili, ocho meses y 27 días.

Finalizada la mili, el 65, se fue a Madrid, trabajando en TVE en el programa "Escala en HI-Fi" donde sin mucha seriedad permaneció un año.

Después siguió todo un rosario de contratos diversos, siempre, eso sí, como primer bailarín, que a grandes rasgos vamos a enumerar, dejando quizás algunos, ya que su trayectoria fue muy amplia:

*En la
Compañía
de Lina
Morgan
como
primer
bailarin,
Sabino a la
derecha.*



Hasta el 68, actúa en el Lido de Madrid y en Televisión Española en los programas de "Galas del Sábado" y "Sábado noche" durante dos años.

Del 69 al 70, en TVE actuaciones diversas, en la Sala de Fiestas Casablanca y en el Casino de Estoril de Portugal.

En 1.971, actúa en el Tablado Flamenco de Calarrayada (Palma de Mallorca).

Del 72 al 75, actuaciones en el Teatro de la Zarzuela con el Ballet Antología y gira por provincias.

En 1.976 realiza ballet moderno en la Sala de Fiestas Pinito del Oro en Las Palmas de Gran Canarias.

En 1.977 y 78: actúa en TVE en el programa de Cisa Cuert.

Desde 1.979. a 1.981: ballet moderno en la Sala de Fiestas Xairo de Madrid.

Del 81 al 84: Trabaja en la Compañía de Lina Morgan como primer bailarín y capitán de ballet en gira por el Estado.

Del 84 al 88 trabaja como profesor de Academia de Danza en la Casa Cultural Benita de Avila y Santa Virgilia de Madrid... y desde 1.988 forma en Madrid su propia academia de Ballet hasta 1.990.



Con Lina Morgan, Sabino a la izquierda.

Desde entonces, ya hace tres años, dejó la Academia y regresa al txoko, actualmente vive en Rentería en la Calle María de Lezo, comenzó dando algunas clases en SAYOA de sevillanas, pero no tenían mucha aceptación, y lo dejó, por lo que al ser un profesional de la danza, confía, al menos esa es su ilusión, en poder enseñar sus experiencias dentro de una coreografía propia y crear en la zona (Lezo-Oiartzun-Pasaia-Rentería) un grupo de ballet-vasco con proyección al exterior, realizando nuestro amplio y rico abanico del folklore vasco, esta sería la mayor aspiración de su vida profesional, poder realizarla en su tierra, con sus paisanos y sobre todo con el respeto y dedicación que siempre ha profesado a su pueblo.

No dudamos, al menos tenemos esa confianza, que con el interés que nos ha demostrado sentir por la danza, mientras nos contaba su amplio historial, lo conseguirá y saldremos ganando todos...

Que así sea, amigo Sabino...

RAFA BANDRES
Mayo 1.993

LEZOKO I. HERRI OLINPIADA

Lezon gazte “mugimenduaren” arrastorik ez zen somatzen Txerrimuñokoa alde batetara utziz eta gazte multzo batek egoera aldatzearen beharra garbi ikusten genuen, baina, nola hasi alternatiba berriak jorratzen? nola aldatu giro ezegoki hau?

Beste herrietako gazte jendareekin harremanetan jarri ginen ideiak lortzeko asmotan, ideietatik egokiena Herri Olinpiada ikusten genuen gure herriko jendearen ezaugarriak ikusita.

Hasieran laupabost pertsonen “puntazoa” zena, indartzen joan zen jendeari erdi proiektua azaltzen gindoazen heinean eta batzordea osatzeko aukerak haunditzen joan ziren. Azkenean batzordea osatu genuen koadrila ezberdineko jendareekin, berehala funtzionatzen hasi ginelarik.

- * Lau helburu nagusi markatu genituen:
- * Herriari irtenbide edo alternatiba berriak ematea.
- * Euskal giro batez EUSKERA bultzatzea.
- * Koadrila ezberdinetako harremanak sendotzea.
- * Ondo pasatzea.



Kirolari Olinpiko guztiak Markesanen eguzkia hartzen.



Batzorde Olimpikoa olinpiadak bukatu eta atseden hartzen.

Helburuetan oinarriturik probak prestatzen hasi ginen elkarlanen funtzionatzen, esperientzi eza kontutan harturik. Batzordea 14 pertsonen osaturik dago eta lana ez da oso pisutsua egin, nahiz eta ardura handiena bi pertsonen eraman.

Batzordearen funtzionamendua eta inplikazioa denon ustez azpimarratzekoa izan da, giro oso "majoa" lortu dugu eta honek lana nabarmenki erreztu du.

EKINTZA BERA:

Herri Olinpiada proba ezberdinez osaturik egon da:

- * IBILALDI NEURTUA.
- * MARATOIA.
- * MAHAI JOKUAK.
- * JOKE-ERRATZ
- * SKY LASTERKETA.
- * ALTXORRA BILA.
- * FUTBITO.
- * GINKANA.



Laino guztien azpitik eta oztopo guztien gainetik...

Probak burutzeko orduan ere helburu batean jarri ditugu indarrak, ahal den neurrian konpetibitatea ez bultzatzea, nahiz eta lortzeko helburu zaila izan gizartearen egoera ikusita.

Maiatzeko asteburu guztietan izan dira Herri Olinpiadak Lezoko kaleak alaitzen.

Guztiok gauza asko ikasi dugulakoan gaude eta herriko gazteen arteko harremanak nabarmenki sendotu dira, lehen zegoen giro hura deuseztuz.

Partehartzaileen erantzuna "ezin hobea" izan da, hamasei talde izan dira herri olinpiada hauetan parte dutenak eta proba guztietan 100 pertsonak inguru parte hartu dugu.

Herriko esparru gehienetako jendea biltzea lortu dugu; Txerri, poteoko jendea, neskak, mutilak... Eta hau izan daiteke benetan bete gaituena.

Oso positiboki baloratzen dugun beste gauza, hizkuntzarena izan da, batzuk kosziente eta beste batzuk ez hain kosziente gure hizkuntzean, EUSKARAZ, funtzionatu dugu. Honek agian jende mota bat kanpoan utzi du, baina euskeraren indartzea esparru guztietan "behar" bat sortzean datzala uste dugu, guk gure "harritxoa" jarri dugu euskarak behar duen, eta guztiok osatu behar dugun "piramidearen" gainean.

Herri Olinpiadak amaituta, lanean jarraitzeko asmoak ditugu, gazte arloan alternatibak sortzen.

"Herri Olinpiadak amaituta, lanean jarraitzeko asmoak ditugu, gazte arloan alternatibak sortzen.

"Herri Olinpiada batzordea" izenari amaiera emango diogu, beste izen bat, "ZABARRE GAZTE TALDEA", hartuko dugularik.



*Nahikoa lan
izan zen
batzutan.*



*Igande
goizetan
zeuden
kirolariak
preskoen.*

Gazte talde honek, atek irekiak izango ditu Lezoko gazte guztientzat. Honekin Lezoko gazteen mugimenduari hasiera emango diogu, gure mobidak, gure alternatibak, guk guztiok prestatzeko eta gozatzeko.

ZABARRE GAZTE TALDEA

LEZOKO INTSUMISIOAREN EGOERA ETA EGIN BEHARRAK

HISTORIA

Estatuak bere lege eta arauen bitartez jendeari derrigorrezko betebeharrak ezartzean sortzen da intsumisioa, oraingoan soldaduzka (S.M.O.) eta Zerbitzu Soziala (P.S.S.). Intsumisioa hauen aurka dagoen borroka orokor bat da. Beraz, estatuak inposatzen dizkigun betebeharrari uko egiten diegu. Badakigu soldaduzka eta zerbitzu sozialak zertara garamatzaten, hor daude intsumisioaren zergatiak.

Lezoko herrian intsumiso kopurua altua da eta etorkizunean haunditzea espero dugu. Gaur egun berrogei gara egoera honetan gauden gazteak.

Ekintza dexente egin ohi ditugu eta nabarmenenak hauexek dira:

- ✓ Jendea informatu
- ✓ Salaketak egin
- ✓ Burulauki kalejirak
- ✓ Itxia aldiak

Lezoko herria herri intsumisioa dugu, hau da, ofizialki ez ditu armadak agintzen dizkion eginbeharrak betetzen. Gainera intsumisioekin bat eginik diru-laguntzak, komunikatuak, eta kontaktu ofizialak burutzen ditu. Jarrera hau garrantzitsua dela uste dugu.

Gaur egun taldearen lana informatzea, laguntza ematea eta beste herrietako intsumiso taldeekin koordinakuntza bateratua eramatea da. Azken bilerak Allerru elkartearen izan ditugu eta bertan jasotako ikuspuntuak oso baikorrak izan ziren, gazte jendea gogoz eta arreta haundiz zalantzak galdetuz aritu zen.

Intsumisioaren aldeko borrokaren egoera ona da, nahiz eta gaur egun, Ekainak 30, Iruñeko presondegian 28 intsumisio gos greban izan. Honek esan nahi du borroka luzea eta latza dela. Dena den egoera hobetuz doa. Hemendik gure elkartasuna adierazi nahi diegu.

Guk, intsumisiook, ez dugu gure burua gaizkiletzat jotzen, kasu honetan soldaduzka eta zerbitzu sozialari uko egitea herriaren mesedetarako dela diogu.

Baina estatuak gartzelaratzeko hauekin azaldu nahi duena zera da, borrokatzen, protestatzen eta parte hartzeko bideak nahi dituen gizaki oro herritar gaiztoak dugula, beraz, estatuak zorientasuna opa die zergak ordaintzen dizkietenei, zapaltzen dabiltzane, txantxan eta droga salmentan leporaino daudenei,...



Lezoko Intsumisoak Alcala de Henaresko presondegian intsumiso presoak askatu!!!

Intsumisioaz irakur daitezken liburuak:

- * Con la Razón Insumisión (Katalanez)
- * Objetores, Insumisos, La Juventud vasca ante la mili y el ejército (Eusko Jaurlaritza)
- * La insumisión encarcela (Carlos M^a Beristain. Ed. Virus)
- * ¿Defensa armada o defensa popular no-violenta? (Gandhi, Ed Orbis)
- * La Inteligencia Militar

Zer egin Intsumisioa praktikan jartzeko?

- ☞ Lehen lana Ministeritzatik Iristen diren gutunak bertara itzuli edo erantzun gabe uztea da.
- ☞ Soldaduzka edo Zerbitzu soziala noiz eta non egin behar duzun jakin.
- ☞ Bertara joan behar duzun garaian ez azaldu eta bidai txartel eta diru txekea tokatu zaizun tokira edo Defentsa Ministeritzara itzuli.
- ☞ Deklarazio konjuntua bete eta bidali.
- ☞ Informatuta egon eta egiten diren ekintzetan parte hartu.
- ☞ Dudaren bat izanez gero beste intsumisoekin harremanetan jarri.
- ☞ Zenbat eta intsumiso gehiago orduan eta indar haundiagoa.



Lezoko Epaitegi aurrean ere askatasun eske.

Nola jarrita dago legea?

Legeak bereiztu egiten du zigortzeko garaian, hau da, 1992. urtea baino lehenagoko intsumisoei hemezortzi hilabetetako gartzela zigorra eta 1992. urtetik aurrerakoei 28 hilabetetakoa. Hau da, ez du gizarteak eskatzen duen irteera eskeintzen bereizketa horien bitartez, diskriminatuz zapaldu egiten dutelako.

Intsumisook ekintza bateratuak burutzen saiatzen gara. Hau da, guztiok betetzen ditugu epaiketatan inposaturiko zigorrak nahiz eta epaiketekin ados ez egon.

Hego Euskal Herrian erabateko intsumisioa egiten dugu, hau da, ez gara epaiketetara joaten eta nahi baldin bagaituzte bila gaitzatela epaiketak fartsa eta muntaia hutsak bait dira.

Azkenik, esan dezagun, gartzela ez dela konponbidea, Ipar nahiz Hego Euskal Herriko intsumiso guztientzako askatasuna eskatzen dugu, bai eta gezurrezko epaiketa horien amaitzea ere.

Intsumiso asko gaude kalean eta gogoz hartuko genuke gure artean intsumiso gehiago, beraz, intsumiso izan nahi baduzu zatoz Txerrimuño edo Allerrura edo Lezoko Intsumiso Taldeko kideren batekin jar zaitez harremanetan.

INTSUMISIOA!!! ARMADARIK EZ!!! GERRARIK EZ!!!

LEZOKO INTSUMISO BAT

OHARRA: Gutun hau 1993ko ekaina idatzi dut eta irailan argitaratuko da, gauzak asko aldatu daitezke uda partean ohizkoa bait da zapalketa areagotzea jendea oportretan dagoen bitartean orduan jendea ez delako hain erne egoten.

LOCOS POR LA RADIO

Son numerosos los radioaficionados de nuestro pueblo, quienes ocupan sus horas de ocio en compartirlas, junto a otros radioaficionados (experiencias, dudas, aficiones, etc, etc). ¿Qué veneno secreto tiene el virus de la radio que cuando ataca produce una "infección" de por vida? ¿Es la radio una predisposición genética del hombre? ¿Refleja sus más subconscientes y ancestrales deseos de comunicación y poder arrastrarlos a través de civilizaciones progresistas? Bien mirado, necesitaríamos los servicios de un experto doctor en psicología para que nos diera una explicación coherente con la razón de este fenómeno del que sólo captamos la realidad resultante. Y aún así...


Hoy en día, los radioaficionados de nuestro pueblo, tienen la oportunidad de integrarse en la asociación de radioaficionados de Lezo UDAR, y realizar actividades tanto sociales como culturales.

En estas fiestas de Septiembre la asociación UDAR esta llevando acabo un juego denominado "24 horas de radio" que trata de dar a conocer nuestras fiestas, no solo en los pueblos más cercanos a Lezo sino a aquellos que aunque no puedan asistir a ellas por encontrarse en otro país, tengan la oportunidad de poder participar de ellas a través de su emisora, y se lleve un recuerdo de Lezo, ya que la asociación UDAR mandará por correo a todos aquellos que participen.

Los socios de UDAR estamos intentando sacar adelante la asociación de reciente creación.

Es bien cierto que todavía queda mucho por hacer, pero también es importante reconocer que el camino recorrido llena de satisfacción a cuantos trabajamos por ello. En este punto sigue más vigente que nunca el objetivo de esta publicación de llevar el mundo de la radio a toda la sociedad. Estamos aún muy lejos de los niveles europeos, quienes hablan de niveles saturados o de techos en cuanto al número de radioaficionados, parecen ignorar la potencialidad del mundo de la radio, o querer ocultar el trabajo de quienes creemos en esta afición.

Según unos datos que manejo, en Lezo hay 53 radioaficionados más o menos, un número considerable, teniendo en cuenta que Lezo es un pueblo más bien pequeño. Pero aún y todo con la creación de la asociación UDAR esperamos que éste número crezca,



que todos aquellos que deseen probar esta afición o quieran conocerla, tengan la oportunidad de escribir o visitar la asociación que desde estos momentos ya es suya.

Esta afición considerada ya como fenómeno social, esta cobrando cada vez más fuerza en nuestro país. Esta actividad que está legalizada en España y en la mayor parte de los países democráticos, está al alcance de cualquiera.

Sin embargo, la mayoría de la población desconoce el valor de una emisora, a la cual le calculan unas 70.000 ptas, siendo esta una cifra esagerada ya que por 20.000 o 15.000 Ud. ya podra formar parte de ésta numerosa familia, con su propio equipo, el cual podra adaptar a casa o al coche.

Con una emisora se puede comunicar con miles de personas que utilizan éste medio de comunicaciones público, sin distinción de edad, sexo, razas o culturas. Con una emisora Ud. puede encontrar desde un niño de seis años hasta a un jubilado de sesenta. Puede encontrarse con un estudiante, un ingeniero, un ejecutivo, un parado o un camionero. Puede comunicarse con su vecino, con un amigo o con un aficionado del otro extremo del país, o bien puede encontrarse con un camionero ingles en tránsito por nuestras carreteras, o bien con un aficionado sueco que acaba de levantarse, a miles de kilómetros del país. Con su emisora, debido a lo extraordinario de su alcance y dependiendo de la situación de cada radioaficionado, las ondas pueden alcanzar, en condiciones excepcionales, miles de kilómetros y su señal captada en otro continente.

Si Ud. cree que podría ser interesante conocer algo más relativo a ésta afición que posiblemente desconozca, escriba a:

UDAR CL 8
Apartado de Correos 398
C.P. 20100
RENTERIA

RAUL GIRALDES
Octubre Rojo



ALLERRU MENDIZALE TALDEA

Urte batzutako isilaldiaren ondoren berriro hasi zaigu ALLERRU MENDIZALE TALDEA lanean. Ez al zenekiten? Orain badakizue ba eta ez duzue aitzakiarik mendira joan beharrean etxean etzanda gelditzeko.

Oraingoz, eman dituzten pausoak laburrak baina sendoak izan dira eta haien asmoa taldea garai batean izan zena izatera iristea da, gutxiago ez behintzat.

Gogoz ari zaizkigu lanean eta urtea hasi zenetik hainbat irteera antolatu dituzte zuretzat (bai, zuretzat) eta lezoar guztientzat. Elurretara bizpahiru irteera, Irumugarrietara guardetxetik abiatuta. San Donatora Lizarrako tuneletik, Urnietatik Aranora Adarra mendian barrera,... Ez dira, ordea, mendia zapaltzera bakarrik joaten, MENDIA BE-



Aralarko tontorretan ezagutzen dituzte lezoarrak.

REZ GARBIA kanpainen parte hartu zuten Jaizkibel mendian garbiketa lanak eginaz. Ez da gutxi, ez, orain arte egin dutena eta etorkizunari begira daude dagoeneko. Ideia berrien hausnarrean, udazkenetik aurrera hilean gutxienez irteera bat egin nahi dute (Aizkorri, Mendaur, Ernio,...). Aztertzen ari dira Piriniotara joateko aukera baina oraindik gauza zehatzik ez. Baina hori egin asmo dutenaren zati bat besterik ez da. Elurretarako irteerak, hurrekin asteburuko irteerak albergeetan lo eginaz, mendiari buruzko kultur astea (mendi zinema emanaldiak, hitzaldiak, ibilaldi neurtua,...).

Honek guztiak lan haundia eskatzen du eta dirua, jakina. Diruz ez dabilta oso ondo oraindik ez bait dute jaso aurreko udal gobernu taldeak agindutako diru-laguntza eta diru apur bat eskuratzeko azokaren bat antolatzeko asmotan dabilta. Horrez gainera beharrezkoa da ahalik eta jende gehien biltzea irteeratan honela bidaiak asko merketzen baitira.

Esandakoaz gain eskaldada kontutan dabilta herriko gazteekin elkarlanean gustora arituko lirakeela aitortzen dute, azken batean biak gauza beretsuan baitabilta.

Hau da oraingoz Allerru Mendizale Taldeaz esan dezakeguna baina ziur gaude aurrerantzean zer esana pranko sortuko dutela orain arteko bideari jarraitzen badiote. Hala bedi.

XAXIKO

LEZO ALDIZKARIAK 5 URTE BETE

Euskaldunok bai omen dugu halako trebetasun berezi bat ospakizunetarako, beti ari omen gara hau ez bada bestea ospatzen. Ospakizunak alaiak baldin badira behintzat ongi etorriak izan daitezela. Ospatu behar badugu ospa dezagun. Oraingoan badugu aitzakiarik. 1988ko Santakruzetan atera zen kalera Lezo aldizkariaren lehen alea eta eskuartean duzun honekin dagoeneko badira hamaika zuei eskeinitakoak. Hamar ale bost urtetan, urtean bina, Santakruzetan eta mendekoztetan, inoiz hutsik egin gabe eta beti berri eta jakingarriak zuen eskutan jarriaz. Ospa dezagun bada, badugu zer ospaturik eta!

Hamar aleok batera begi aurreran jartzea aski da urteak ez direla alferrik pasa ikusteko. Aldizkariak funtsean lehengo bera izan arren denboraren poderioz berezko nortasuna hartu du, itxura bera ikustea aski da.

Orduko kultura batzordearen eskuetatik sortu zen LEZO ALDIZKARIA. Joseba Aurkenerena kultura batzordeko zinegotziak eta batzordean biltzen ziren herriko elkarte guztien bultzadaz sortu zen. Haien nahia aldizkari herritarra nahi zuten, lezoarren idazlanean osatua eta aldi berean Lezok herri bezala duen nortasun berezia jorratzen jakingo zuena. Hori dela eta biltzen ditu aldizkariak hainbeste atal, herri honek duen bizitza aberatsaren erakusgarri. Horrek ez du ukatzen herrikoak ez direnek idatzi izan dituztenak argitaratu ezin direnik, bada hamaikatxo lan honela jasotakoak, gure herriaz esan izan direnak bilduz eginak. Gainera lanik gehienak lezoarrek idatziak direnez bakoitzak bereari eusten dio, zeinek historiari, zeinek literaturari,... Hau dela eta LEZO ALDIZKARIA hein haundi batean bilduma izan da, lezoarrek bidaltzen dituzten lanen bilduma. Idatzi izan dutenek eta ez dutenek egin dute aldizkaria gaur egun arte izan dena, guztiok izan gara eragile modu batera nahiz bestera.

1991ko hauteskundeen ondorioz udal gobernu batzordearen osaketa aldatu egin zen eta guztiok ongi dakizuenez lehen erabakietako bat batzordeak desagertaraztea izan zen herriaren parte hartze zuzena saihestearren. Horrek, besteak beste, kultura batzordea desagertzea ekarri zuen eta ondorioz LEZO ALDIZKARIA umezurtz gelditzeko arriskua izugarria zen. Ez zen denbora askorik joan, ordea, Lezoko Elkarte Koordinakundea sortu arte. Honek aldizkariaren erronkari eutsi zion sortzerakoan jarri zitzaizkion ezaugarriak ahalik eta zintzoen eutsiaz (Lezoren herri nortasuna bultzatu eta idazteko gogoz den ororen lanak argitaratzea). Aro berri honetan aldizkaria betiko epeak errespetatuz atera izan da kalera nahiz eta udal gobernu batzordearen aldetik ez zen proiektu honi eusteko gehiegizko interesik nabari (Guzti honen berri izan duzue aurreko aleetan).

11. alea kalera atera denean udal gobernu batzordearen osaketa aldatu den arren eta kultura batzordea berriro sortu Lezo aldizkariak Lezoko Ekarte Koordinakundearen ardurapean dago Oroitzenen AEK euskaltegia duelarik gune hauxe baita egun osoz bulegoa zabalik duen herriko elkarte bakarra.

Bost urte hauetan makina bat kontu jaso ditu aldizkari honek, gehienak gainera lezoarrek idatziak eta gutxi batzuk beste argitalpen batzuetatik hartuak. Hona hemen hamar ale horietan atalez atal argitaratu diren lanen kopurua.

	LEZO 1	LEZO 2	LEZO 3	LEZO 4	LEZO 5	LEZO 6	LEZO 7	LEZO 8	LEZO 9	LEZO 10	GUZTIRA
HISTORIA	8	3	3	3	3	5	4	2	2	2	35
GIZARTEA	2	2	2	5	6	6	5	2	5	4	39
KULTURA	8	7	3	4	6	7	4	2	2	3	46
EKOLOGIA					2	2	4	2	2	3	15
SAIOAK	1	3	3	3	2	6	4	3	2	1	28
IPUIAK	1	1	3	3	4	3		2	2	4	23
POESIA	1	2	2	4	6	1	4	1		3	24
BERTSOAK	1	1		1	1	3	1	1	2	2	13

Ikus dezakezuen ez da makala aldizkari honek orriek biltzen duten lan kopurua eta are gogoangarriagoa da kontuan hartzen badugu ia gehienak lezoarrek idatziak izan direla.

Gaiei dagokienean aipatu beharrekoa da denboraren poderioz osatuz joan dela, honela LEZO 5ekin ekologia saila zabaldu zen eta geroztik xuxen-xuxen bereari eutsi diola. Ezin esan hori beste atal batzuetaz, sukaldaritza eta iritzi artikuloen sailak zabaltzen ahalegindu izan gara baina ez dirudi arrakasta haundirik izan dutenik. Honek ez du esan nahi sailok itxi egingo ditugunik, zabalik daude nahi duen edonorentzat, bereziki iritzi artikuloen aldizkari honek lezoarren adierazpide izan nahi bait du alderdi guztietan.

Aipatzekoa da, bestalde, elkarteok aldizkariaren lana oso osorik gure gain hartu geuentk (LEZO 7) eduki aldetik erronkari eusten jakin izan diogula, atal guztiak gordez, artikulua kopuru orekatua lortuz,...

Agertu diren gaiei dagokienez denetarik ikusi ahal izan dugu, hasi historiari buruzko artikulorik txukunenetatik eta O.H.E.etaraino (Objetu Hegalari Ezezagunak), eta bi muturren artean lezoko pertsona ezagunen gora-beherak, Lezoko eskolak, droga trafikoa, artea,... Benetan joriak izan dira Lezoko idazleak azken bost urte hauetan.

Idazleez ari garelarik aipatu beharrekoa da bertan parte hartu duen idazle mordoak. Gehienak lezoarrek izan diren arren kanpoko laguntzaileak ere izan ditugu (Marc Legasse, Xose Estevez, Edu Zabala,...) Lezoarren artean Joseba Aurkenerena, Lander Zurutuza, Karlos Barrentsoro, Agustina Pontesta, Munttar, Lezoko Ekologi Taldea, Zabarre,...: Guztira hirurogei sinadura ezberdin ditugu (Idazle lezoarren artean soilik).

Hizkuntzari dagokionez, orotara argitaratu diren 223 artikuluetatik 170 daude euskaraz eta gainerakoak erdaraz. Artikulu hauetako gehienak hizkuntza bakarrean idatziak izan diren arren badaude elebitan argitaraturikoak ere. Esandakoarekin agerian dago lezoar idazle gehienek aukeratu duten hizkuntza zein den.

Aldizkariaren azala aiez ale aldatu dugu gehienetan lezoar artisten lanak agertuz. Haue-tako askok lezo herria dute gaitzat (Lezo 1, 2, 3, 5, 6, 8 eta 9) artistak herriaz duen ikuspegi berezia eta pertsonala azalduaz. Azalen egjelak artikuluenak bezalaxe laguntzaile hutsak dira. Aipamen berezia merezi dute Andoni Trekuk, Lander Zurutuzak, Mikel Susperregik, eta Txema Gartziak.

Gauza asko esan daitezke Lezo aldizkaria, baina lerro hauetan esandakoa nahikoa agergarria da eta gainera zuek ederki ezagutzen duzue. Honen aurrean, bada, egokiena txostentxo hau amaitzea izango duzu 11. ale hau gozaten jarrai dezazun. Ondo izan

LEZO ALDIZKARIA

NOTA: Este artículo se publicará traducido en el siguiente número.



LEZO 2


CONTIENE UN TEXTO DE LA HISTORIA Y EVOLUCION DE LEZO EN EL SIGLO XX. EN EL SIGLO XIX LEZO ERA UN PUEBLO PEQUEÑO Y SE ENCONTRABA EN LA ZONA DE LOS MONTES. EN EL SIGLO XX LEZO HA SUFRIDO UN PROCESO DE TRANSFORMACION Y SE HA CONVERTIDO EN UN PUEBLO MODERNO. EN EL SIGLO XX LEZO HA SUFRIDO UN PROCESO DE TRANSFORMACION Y SE HA CONVERTIDO EN UN PUEBLO MODERNO. EN EL SIGLO XX LEZO HA SUFRIDO UN PROCESO DE TRANSFORMACION Y SE HA CONVERTIDO EN UN PUEBLO MODERNO.

LEZO 3

LA ZONA INDUSTRIAL DE LEZO

1980

LEZO 4



LEZO 6

LEZO 7

LEZO 8


LEZO 9

LEZO 10

**L
E
Z
O
A
R
R
A
K**



ARGAZKITAN 1927 - 1936



Izenburu honen azpian JOXE MIEL TREKUK aldizkari honetan argitaratzeko utzitako argazkiak bildu nahi ditugu. Aspaldiko argazkiak dira, errepublika garaiko eskola argazkia, elizakoak,...

Argazkietan agertzen diren izen guztiak Joxe Miel Treku berak jarriak izan dira.


Mila esker Joxe Miel Treku jaunari altxor hau argitaratzen uzteagatik.

OHARRA: Etxean argazki historikorik baldin baduzu eta aldizkari honetan argitaraturik ikusi nahi izango bazenitu, ekar itzazu, gu prest gaude argitaratzeko: Oroitzene AEK Euskaltegia, ostiraletan 6etatik 9etara edo ordu berean 51 91 44 telefono zenbakian.



- 1) Angel Maeso. 2) Luis Maeso. 3) Antonio Korta. 4) Felipe. 5) Jexux Zumeta. 6) Raimundo Serrano.
- 7) Juan Bautista. 8) Daniel Otegi. 9) Inaxio Artesoro. 10) Nikomedes Pikabea. 11) Felix Untzain.
- 12) Nikolax Garmendia. 13) Andres Velasco. -Maixua- 14) Ricardo Salaberria. 15) Isaac Villarrubia.
- 16) Teodoro Areito. 17) Rafael Salaberria. 18) Luix Pikabea. 19) Miel Sarasola. 20) Luix Salaberria.
- 21) Fidel Veintemillas. 22) Pakito Alerdi. 23) Antonio Manoyo. 24) Eustakio Areito. 25) Polen Gezala.
- 26) Ximon Lizarazu. 27) Joxe Miel Treku. 28) Eli Salaberria. 29) Joxe Zuloaga. 30) Auxtin Pikabea. 31) Luis Herrera.
- 32) Joxe Lizarazu. 33) Joxe Maritxalar. 34) Antonio Pikabea. 35) Xabin Gezala. 36) Pablito Areito. 37) Maxi Espina.
- 38) Felixin Laborjeta. 39) Daniel Fernandez.


1927 urteko ESKOLA ARGAZKIA.





- 1) Felix Pikabea. 2) Nikomedes Pikabea. 3) Manuel Saizar. 4) Don David Esnal, apaiza.
- 5) Mujika-eguzkitzakoa. 6) Joxe Legorburu. 7) Isaac Villarrubia. 8) Miurakua.


1930. JAUNARTZE EGUNEKO ARGAZKIA GOIKO ELIZAN.





- 1) Nikomedes Pikabea. 2) Trini Askasibar. 3) Nikolax Garmendia. (?) 4) Hipolito Intxarraundieta. 5) Felix Pikabea. (?)
 6) Iñaxio Intxarraundieta. (?) 7) Benjamin Askasibar. 8) Felix Untzain. 9) Eli Salaberria.


LEZOKO MONAGILO TALDEA: GERRA AURREKO ARGAZKIA.





- 1) Daniel Fernandez. 2) Vicente Ruiz. 3) Pile Villarrubia. 4) Pedro Pedrosa. 5) Alfonso Pedroas. 6) Migel Alberro.
- 7) Migel Sanzberro. 8) Joxemiel Treku. 9) Don Luis, -Maixua-. 10) Manolo Ruiz. 11) Antonio Ruiz.
- 12) Pako Beramendi. 13) Joxe Mari Garzia. 14) Anttonio Alberro. 15) Mañuel Sanzberro. 16) Melintton Garmendia.
- 17) Kandido Cordero. 18) Mañuel Lopetegi. 19) Anttonio Pikabea. 20) Anttonio Villarrubia. 21) Felix Laborjeta.


1932. ESKOLA ARGAZKIA.





- 1) Migel Sarasola. 2) Manolo Ruiz. 3) Pedro Pedrosa. 4) Migel Alberro. 5) Joxe Mari Legorburu. 6) Ladis Treku.
- 7) Anttonio Alberro. 8) Manuel Sanzberro. 9) Eustakio Areitio. 10) Pakito Aierdi. 11) Rafael Madariaga.
- 12) Serafin Treku. 13) Pedro Erzibengoa. 14) Migel Sanzberro. 15) Don Luis -Maixua-. 16) Joxe Miel Treku.
- 17) Burgosko -Maixua-. 18) Don Hilario -Maixua-. 19) Daniel Fernandez. 20) Pablo Areitio. 21) Anttonio Larrea.
- 22) Moixex Goia. 23) Manolo Larreta. 24) Antonio Villarrubia. 25) Juan Joxe Lizarazu. 26) Xebaxtian Lopetegi.
- 27) Vicente rui. 28) Kandido Cordero. 29) Mañuel Lopetegi. 30) Koldobika Lopetegi. 31) Rafael Madariaga.
- 32) Felixin Labordeta.


1932. URTEKO ESKOLA ARGAZKIA.





- 1) Florentino Saizar. 2) Rosario Olaizola. 3) Gregorio Maritxalar. 4) Hipolito Intxarraundieta. 5) Alfonso Salaberria.
- 6) Joxe Kruz Urkizu. 7) Bixente Agirre. 8) Anastasio Intxarraundieta. 9) Maurixio Urkizu. 10) Bartolo Salaberria.
- 11) Luis Intxarraundieta. 12) Migel Sarasola. 13) Rikardo Salaberria. 14) Trini Askasibar. 15) Doni Salaberria.
- 16) Luis Salaberria. 17) Jexux Pikabea. 18) Xixilio Salaberria. 19) Antonio Larrea. 20) Joxe Legorburu. 21) Julian Salaberria.
- 22) Nikomedes Pikabea. 23) Luis Pikabea. 24) Nikolas Garmendia. 25) Joxe Zuloaga. 26) Dionixio Zabaleta. 27) Angel Lopetegui.
- 28) Cruz Alberdi. 29) Manuel Saizar. 30) Celestino Salaberria. 31) Pontxio. 32) Luis Saizar. 33) Migel Sanzberro.
- 34) Rafael Salaberria. 35) Pakito Alerdi. 36) Inaxio Artola. 37) Felix Untzain. 38) Eli Salaberria. 39) Inaxio Lopetegui.
- 40) Bittor Irazu. 41) Inaxio Olasagasti. 42) Fernando Intxarraundieta. 43) Bixente Cordero. 44) Inaxio Intxarraundieta.
- 45) Etxegoien. (Apaizartzakua) 46) Joxe Mari Legorburu. 47) Tomas Aiestaran. 48) Felix Pikabea. 49) Fermin Erkizia.
- 50) Luix Saizar. 51) Fermin Pikabea. 52) Mañuel Sanzberro. 53) Manolo Larreta. 54) Juan Bautista Berasarte.
- 55) Bonifacio Agirre. 56) Joxe Miel Treku. 57) Inaxio Irazu. 58) Xerafin Treku.

1936. LEZOAR GAZTE TALDEA DONOSTIAN NOBENAK EGITERA JOANDA.
HURRENGO EGUNEAN FRANKOREN ALTXAMENDUA GERTATU ZEN.



ZABARRE FESTA

Badator Zabarre itsasotik, festa! badator herrira herriko semea, festa! Ospa dezagun, kanta eta dantza, mila borrokatan sendotutako lezoararren itzulera.

Zer da Zabarre festa? Zabarre festa herriko gazteok Zabarre lezoar itsaslapur adoretsuaren



itzulera ospatzeko egin asmo dugun ekitaldia da. Zabarre, hala dio kondairak, Santakruztzetan herrira itzultzen da festak herriko lagunekin ospatzera eta bere borrokatan irabazitako aberastasunak herrikoen artean banatzera.

Aurten Lezoko gazteok itsasoz etorriko den Zabarre Lezoko kaian hartuko dugu musikaren alaitasuna lagun eta gure festa gogoaren indarrak Kale Nagusian barrena bere etxeraino eramango dugu (badakizue, Zabarre etxeraino). Han itsasoan irabazitako ondasunak herritarren artean banatuko ditu. Zabarre etxetik Markesanera joango gara eta bertan Zabarre adoretsuaren mezua entzun ostean festa eta parranda egingo dugu gure lagunaren etorrera ospatzeko (izango da nahikoa jan eta edana antzina itsasgizonek Lezora itzultzean egin ohi zen moduan).

Jaiak iraun bitartean gurekin izango da Zabarre baina zezensuzkoaren ostean atzera berriro kaiara itzuliko da, beste urte bete baterako agur eginaz, baina orduan ere han izango gara gu; agur esaten itsas ekaitzik gogorrenetan adoretsu izan dadin animoak ematen.

Zabarre festa hau lezoar izaeraren barruan kokatzen dugu; izan nahiaren irrikak bulztaturik egiten dugu eta beronen ospakizunari eutsiko diogu Lezo lur azalean den bitartean. Hala nahi dugu eta hala bedi!!

Itsasoa eta mendia
Lezoren harresia
ozen entzun dadila
bizi nahiaren garraisia.

ZABARRE GAZTE TALDEA

LAU LEZOTAR DANTZARIK POSTU BIKAINAK BEREGANATU DITUZTE

Mederi Orbiso, Eneko Oiartzabal, Haritz Salamanka eta Oroitz Saldias lezotar dantzariak sari ugari irabazi dituzte Murixka Dantza Taldean hasi zirenetik, azkenak mar txoan Orereta eta Beasainen izandako aurreku txapelketetan.


Lezotar dantzariak azkenaldian jasotako sariak Oreretan izandako Gipuzkoako Aurrekulari Txapelketan jaso zituzten, izan ere Mederi izan zen lehena, Ander laugarren eta Eneko bostgarren, 7 eta 11 urte bitarteko mailan. Era berean, 12 eta 15 urte bitartekoan Haritz bigarren gelditu zen eta Oroitz zazpigarren.

Beasainen lokal mailan izandako Aurreku Txapelketan ere emaitza onak eraman zituzten Lezora, Haritz lehena, Mederi hirugarren eta Oroitz laugarren postuak eskuratuz. Txapelketa berean begiraleari plaka bat eskeini zioten.

Dantzariak urte asko daramate iharduera honetan eta ez daude batere asperuta "gustatzen zaigu eta segitzeko asmoa dugu". Horretarako gogor entsaiauten dute astero zazpi orduz "astean zehar lau egunetan suelta lantzen dugu eta taldetan berriz bi egunetan biltzen gara. Gainera ariketa saioak egiten ditugu astean ordubetez, gimnasia eta dantzaren arteko bidea aztertuz".

Taldean suelta, fandango eta arin arina ikasten dute batez ere "Gipuzkoako dantzak ikasi ditugu, orain berriz Bizkaikoekin ari gara eta urrengoan Zuberoa eta Benafarroakoak landuko ditugu".

Sueltoan bakoitzak bere bikotearekin duen konpenetrazioa azpimarratzen du



Murixkako begiraleak "maila onak lortu dituzte Oroitz eta Aitziber Arriaga batetik, eta Haritz eta Iratxe Etxegoienek bestetik". Honen arrazoia konpenetratio osoan datza "askotan bikoteak ez badu funtzionatzen ezin dugu ezer egin, asmatu behar da".

Lau dantzariak txapelketa eta jai guztietan parte hartzen dute "Euskal Jai guztietara joaten gara, Zaldibia, Berriz, Aoiz eta Urretxu besteak beste. Datorrenak Oorereta maia-tzean ta Lezon ekainaren 19an izango dira. Urrengo auresku txapelketak berriz Azkoitia eta Lezon burutuko dira". Bestalde Araba Euskaraz eta Nafarroa Oinezen ere egonak dira.

Murixka Dantza Taldeak iadanik 130 dantzari biltzen ditu, kontutan hartzeko kopurua, inguruko herritako biztanleak eta Lezokoen arteko diferentzia ikusita "lau edo bost urterekin hasten dira eta gure asmoa hamabost urtetik gorako talde bat osatzea da, dagoe-neko adin horietako haurrak daudenez. Gero kantera modukoa bihurtuko litzateke" dio begiraleak, "gure helburua dantza talde hau lortu arte martxan jarraitzea da" gaineratzen du.

Lezon dantza afizioa aspaldidanik murgildua dago izan ere aurretik Alleru Elkartearen inguruan beste talde bat bait zegoen desegin zena "garai hartan suelta Lezon egiten zen bakarrik. Orain dela lau edo bost urtetik beste tokitan taldeak osatzen ari dira".

Beraz, gaztetxo hauen emaitzak ikusirik, Murixkak baduela etorkizuna baieztatu du begiraleak.

GARBINE OLAIZOLA



ZEIN ARRAIO OTE ZEN JOANNES ETXEBERRI HORI?

“... es el autor de una tentativa tan bien razonada como entusiasta para convertir la lengua vasca en el instrumento principal de la enseñanza que podemos llamar secundaria en el País”.

Luis MICHELENA: *Historia de la Literatura Vasca*

Orain dela hamabost urte Lezoko Altamira gailurrean herriko ikastetxe berria eraiki zenean, euskal idazle batengan pentsatu omen zuten eskola berria izendatzeko: JOANNES ETXEBERRI. Euskal Literaturan bi idazle daukagu izen honekin, lapurtarrak biak, Ziburukoa bata, apaiza eta poesia egilea, eta Sarakoa bestea. Gu Sarakoari arituko gara hemen eta ondoko lerroetan pertsonaia honen inguruko zenbait berri aipagarri azaltzen saiatuko gara.

JOANNES d'ETCHEBERRI, —garaiko idazkeraren arabera—, Saran jaio zen 1668. urtean eta Azkoitian hi 1749. nean. Medikua ogibidez, herri ezberdinetan lan egin zuen, eta horien artean Hondarribian, non ospe oneko medikua zuenez 1722. urtean hiriak herriko medikutzat kontratatzea erabaki zuen. Ez dago ziurtatzerik Lezoko gure inguru hauetan ibili zenik baina, beste aldetik, urte hauetan Lezo oraindik administratiboki Hondarribiko udal barrutira loturik zegoela ez dugu ahaztu behar eta, beraz Etxeberriek nola edo hala Lezo ongi asko ezagutu behar izan zuen.

Baina, Joannes Etxeberri ezaguna bada ez da medikua izan zelako, euskaraz eta euskarari buruz idatzitako lanengatik baizik. Bere idazlanak Julio Urquijo filologo jakitunak Zarauzko Frantziskotarren komentuan aurkitu zituenari esker ezagutzen ditugu. Motrikuko medikua zen Joannes Etxeberriren seme batek komentuan utzi zituen bere aitaren idazlanak, gaur egun arte argitaratugabeak. Zorionez, Xabier Kintanak moldatu eta Lur Editorialak argitaraturiko **Joannes Etxeberri Sarakoaren Lan Hautatuak** izeneko liburuari esker, une honetan denok badaukagu eskueran haren hitzak ezagutzeko aukera.

Euskal literaturan ospea merezi badu bere orijinaltasunagatik da: ez zen apaiza izan; euskararen defendatzaile sutsu eta apologetikoa, baina, besteak ez bezala, esan nahi zuena euskaraz idatzi zuen; eta azkenik, euskarazko irakaskuntzaren aintzindari izan zen.

Ez zen apaiza izan, eta hau berria zen ordura arteko Euskal Literaturan. Ibon Sarasolak Euskal Literaturaren Historia liburuan dionez:

“Euskal literatura euskal apaizen literatura dela esan daiteke. Ikusi dugunez, XVI-gn. mendeko bi idazleak apaiz dira, halaber XVII-gneko guztiak, Ohienart ezik, eta XVIII-gnekoak, Etxeberri eta Barrutia ezik. Hiru mendeak hartzen badira, %90 apaiz direla ikusten da”.

Beraz, Joannes Etxeberri gure bigarren idazle laikoa dugu, eta honen ondorioz, bere lan literarioa gai erlijiosoetatik aldenduko da beste moetak alorrak jorratzeko, batipat euskararekin zerikusirik zeukaten gaiak.

Euskara zen Etxeberrirentzat bere idatz lanaren arrazoi eta ardatz nagusia. Euskaraz pentsatu eta euskaraz idatzi egin zuen. Euskararen apologista eta defendatzailea. Bera bezalakoak beste asko baziren, baina Etxeberri, besteak ez bezala, euskaraz azaldu zituen bere argudio eta aipamenak. Gaur egun oraindik ikusi behar izaten dugu nola asko eta asko erdaraz idatziz eta hitzeginez gure hizkuntzaren defentsan agertzen diren. Alde honetatik, Joannes Etxeberri salbuespen eredugarria gerta dakiguke gaur ere, euskaren defentsarik hoberena erabilpenean bait datza.

Euskal irakaskuntzaren aintzindari dugu. Bera konturatu zen nola herri guztiek beraien hizkuntzak maitatzen eta estimatzen zituzten eta nola literatura bultzatzen zuten. Euskaldun ordea, oso ardura gutxi zeukaten euskararekin zerikusirik daukan edozerekin. Etxeberri, hau zuzentzeko asmoz Lapurdiko Biltzarrea jo zuen eginkizun honetan euskal instituzioak konprometitu nahian, baina, tamalez, ez zioten jaramonik egin eta kajoian gorde behar izan zuen egindako lana eta gogo guztia.

Orain arte esandako dena bere lau idazlanetan isladatzen da:

- Lau-Urdiri Gomendiozco Carta edo Guthuna; 1718. urtean idatzita, Lapurdiko (lau-Urdi, behar luke bere iritziz) Biltzarreari euskarazko irakaskuntza eskatzen dio, eta bide batez euskaraz erakusteko prestaturik dauzkan lanak argitaratzeko diru laguntza.
- Escuararen ethorquia; 1712. urtean idatzita euskara eta bere gramatika goraiatzeko.
- Escual Herri eta escualdun guztiei escuarazco hatsapenak latin ikhasteko. Latina ikasteko euskaraz idatzitako gramatika.
- Lau hizkuntzetako histegi bat, Euskara-Latina-Gaztelera-Frantsesera hain zuen. Galdua dagoenez ez da zehazki ezagutzen, baina badakigu aita Larramendik erabili omen zuela bere hiztegia osatzerakoan.

Idazkerari buruz, kritikoez bere hizkuntz trebetasuna azpimarratzen dute. Axular eredu ta maisu, Etxeberri jarraitzaile garbiena dugu. Ez da Axular bezain oparo eta lerdena, baina bere idatzietan oreka eta dotorezia antzematen da, askoren iritziz, lapurtar klasikoak idazle hoberenetarik bat.

Ondoren eta bere idazkeraren adierazgarri Joannes Etxeberri idazleak idatzitako pasarte bat kopiatuko dizuegu. Bertan, Orreagako istorioaren zati bat agertzen da bere hitzez kontatua:

“Eta nola jende sentikor hura bere baithan minberatua tzengoen erre-zibitu zuen bidegabeaz, eta laidoaz mendekatzeko parada bilha zebilan, eta hargatik Franziako harmada gibelat izultzen zelarikan, haren gibel aldeko soldadueriari kuraziozki ekhin zitzeien Pirineoko atheetan: soldaduez eta harmaz gutiago izan arren, estrosada dohakabe batez garaitu zituzten. Halatan beraz dugu entzun Eginhardo erregeren gort-heko notaria, eta Karlo Magnoren gauza gehien ezagutza izan zuena, zeinak prinze hunen bizitzaren ganean zehero izkiribaturik moldatu zuen liburuan, zer pasatu zen Espainiako estrosada hunetan”.


Zein ote zen Joannes Etxeberri hori? Dagoeneko ezagutzen dugu pixka bat gehiago eta benetan egoki eta aproposa deritzogu eskolaren izenerako.

IÑIGO ETXEBESTE

NOLAKO JAIZKIBEL DUGU? NOLAKO JAIZKIBEL NAHI DUGU? NOLAKO JAIZKIBEL IZANGO DUGU?

Asko hitzegin da, esan da, bizi eta sufritu da gure bizilagun eta babes den Jaizkibel mendiarekin. Garai batetako histori eta kontakizunei esker, bere edertasun eta aberastasuna imajinatu dugu eta gure aiton amonek ere hainbat eta hainbat xehetasun eta histori kontatu dizkigute. Guk ere, txiki txikitandik, jolas leku, bizi toki izan dugun Jaizkibel, gizakiok egunetik egunera nola izorratzen genuen lekuko izan gara eta gara.

Militarrak, harrobia, argi indar sareak, pinuak, pistak, suteak, eraikuntzak, antenak, euri azidoa, gizakien inbasioa, zaborteziak, itsaso zikintzeak, etab., azken finean errespetu eskasak eta etekin ekonomikoek lur jota utzi dute Jaizkibel gaixoa.



Egitasmo berria.

Gaixorik, ia ia isolaturik, eraso bat bestearen atzetik datorkiolarik, eutsi nahian, hil zoriona baina oraindik ere bitxikeri eta aberastasun ugariz beterik agertzen zaigu.

Eusko Jaurlaritzaren aldetik, herrialde guztietan, lur antolaketa bat egiten ari dira, lur bakoitzaren erabilpenak zehaztuz. Dirudenez Jaizkibel mendia babesarik gabe geratuko litzateke "USO NO DEFINIDO" kalifikazioa hartzen bait du, hau da, edozein astakeri egin litekeen lur eremua, nahiz eraikuntza, errepide, kai, harrobi...

Hondarribiako talde ekologista eta udalak gaiari heldu eta Jaizkibeli buruz, 1990eko apirilean eta diputazioaren aginduz "EKAIN" taldearen eskutik egindako egitasmoa oinarritzat harturik, Jaizkibel babesteko bilera eztabaidak egiten hasiak dira. Lezon ere horretan gaude.

Herritar guztiontzat interesgarria eta aberasgarria izango delakoan, gehienbat Lezori dagokionaren laburpen bat eskeintzen dizuegu, honekin loturik eta azken atalean, Lezoko udaleko ingurugiro batzordean agertutako kezka eta ezadostasunak gehituz.

Lehen esan bezala, ikerketa hau duela hiru urte egina izan zen orain arte hauts tartean eduki badute ere.

Hasteko esan beharra dago antolamendu egitasmo honek ez duela Jaizkibel bere osotasunean hartzen, lurralde asko, Gaintxurizketako magaleak, Lezo inguruko eremuak, etab., kanpo geratzen bait dira.

Dena dela eta ikertutako mugen barneko lur eremuak honela banatuta geratuko litzateke:

- ✓ Kosta eta amildegia
- ✓ malda eta gailurrak
- ✓ Hondarribia aldea, Guadalupe, Higuera
- ✓ Lezo eta Pasaiako inguruak.

Antolamenduak lau atal hauek hartzen baiditu ere, hemen gehienbat, Lezori dagokiona azaltzen saiatuko gara informazio zabalago bat nahi ezkerreko Udalera ere jo daitezke larrik.

Honela bada, Lezori dagokionez eta antolamenduaren helburuei buruz honako hau dio:

"Reserva de la cresta de Eguzkitza como posible equipamiento municipal de espacios libres, mejorando sus accesos y considerándolo como zona periurbana con tolerancia de edificación":

- * Protección y mejora del tratamiento de la campiña y laderas sobre Pasajes y Lezo.
- * Creación de elementos de cornisa y paseo en las laderas sobre Pasajes y Lezo.
- * Control y regulación del uso de huertas.
- * Mejora de la accesibilidad general.

Proposatzen dituen konponbide orokorrak hauexek lirateke: "La colina de Eguzkitza, sobre Lezo, tiene posibilidades para la creación de un recinto semejante al de Arrokaundieta, como lugar de estancia, reposo y magníficas vistas sobre el puerto y valle".



*Lezo
Jaizkibelen
kumea da.*

“En la parte alta de cumbres y laderas el uso dominante será el ganadero y el forestal. Los planes priorizarán la detención de los procesos de erosión, plantación de arboleda autóctona o de tipo atlántico y protección de esta zona con cercados”. “Las pistas tendrán un uso acorde con la EXPLOTACIÓN autorizándose el paseo peatonal y en casos especiales el paseo ciclista, con algún punto de mirador e instalaciones anti-incendio”.

Komunikabide edo errepideei buruz zera dio:

“Conexiones de borde desde Gaintxurizketa; una hacia Lezo y la colina de Eguzkita, y otra hacia Guadalupe, mediante dos viales”.

ANTOLAKETA EGITASMOAREKIN EZADOSTASUNAK

Lezoko Udaletxean 93ko ekainean egindako ingurugiro batzordean, baserritar, mendizale nahiz ekologisten aldetik behar beharrezkoa ikusten da Jaizkibel babesteko antolakuntza bat; hala eta guztiz ere “EKAIN”ek egindako proiektua mesfidantzaz ikusten zen, onerako beharrean, txarrerako ez ote litzatekeen azalduz.

Batzorde honetan, lehenik, antolamendu egitasmoak Jaizkibel bere osotasunean hartzea ikusten zen, hau da, mugak errepide nagusiraino zabalduz, Gaintxurizketako erreka, baserrigune, etab., bertan barneratuz, eta zenbait jabego pribatu publiko eginaz.

Batzorde honen ustez lehentasuna beti ere interes ekologikoei eman behar zaio, era-soak, explotazioa eta espekulazioa baztertuz. Jaizkibel babestu nahi bada, berehala hastea komentatzen da, dauden inpaktoak gutxituz, ez bait du inongo logijarik azterketa hau egiten ari den bitartean, mendiari egiten ari zaizkion erasoekin jarraitzea (harrobia, ehiza, rallya, pista berriak, zabortegeiak, suteak, militararak...).



Jaizkibel behin eta berriro erre dute.

Militarrak alde egitea ongi ikusten da mendi zati hori herriarentzat berreskuratuz.

Bestalde, honelako plan edo egitasmo batek Jaizkibel babestu nahi badu, kotxea mugatu behar duela ikusten zen eta ez errepide berriak eraiki edo eta adibidez 15 parking egin. Era berean pista berriak ez egitea eta daudenak ixtea proposatzen da, oinezko eta batzuk, txirrindentzat bakarrik geratuko liratekeelarik. Proiektu honek kotxea potentziatzen du, parking, errepide ondoko parkeak, zaborra eta hainbat eraso ekarriz.

Batzordean Diputazioak gaur egun daraman berpoblaketa ere kritikatu zen, produkzio eta explotakuntzan oinarrituta bait dago, berpoblaketa bertako zuhaitzez eta batezere AMETZAZ (*Quercus Pyrenaica*) zuhaitzez egitea proposatzen delarik, beti ere baso horiek mendiaren aberastasun bezala zaindu eta babestuz.

Eguzkitza aldeko parke mota hori baztertu egiten da, gainera 30.000 watioko argi indar sarea pasatzen delako, autoei zuzendutako parke bezala konteplazten delako eta Sotxo ingurua bera ere gehiago degradatuko duelako.

Azkenik kostaldea "zona sensible" kategoriaz izendatzea proposatzen da itsasoa bera ere garbi mantendu nahian.

LEZOKO EKOLOGI TALDEA


ZENBAT DENBORA BEHAR DUTE USTELTZEN

Zenbat eta zenbat aldiz, kalean nahiz mendian, guk sortutako zikinkeriak inolako axolarik gabe bertan uzten ditugu? Gure zerrikeriek, kalean, itxusi egiten omen dute eta horretarako gure soldata zait bat uzten dugu kalegarbitzaileek zerrikeri horiek bil ditzaten.

Mendian ordea ez dago kalegarbitzailerik, eta nahiz eta zikinkeriak lurrera botatzea gaizki egon edozein tokitan, aurrean aipatutako arrazoiagatik mendian oraindik arazo larriagoa bihurtzen da.

Gizakia, munduaren jaun eta jabe balitz bezala, errekupera ezinak diren sustantziak erabiltzen ditu eta inolako kontrolik gabe erabili eta edozein tokitan utzi.

Hemen agertzen den zerrenda honen bidez, berzikla daitezken produktoak erabiltzea bultzatu nahi genuke, derrotxeari aurre egin eta hurrengoan zerbait lurrera bota aurretik bi aldiz pentsatzea.





1.- PAPEREZKO ZAPIAK

Inguru heze batean hiru hilabete behar ditu ura eta gas karbonikoa bihurtzen. Plastikozkoak oraindik gehiago.


2.- BEIRA

Beira, sosa, hondar, kare eta gehigarriz osatuta dago eta kimikoki oso egonkorra da. Zelai batean botatako botaila batek 4000 urte beharko lituzke usteltzen.



3.- AUTOBUS TXARTELAK

Txartel batek kanpoan eta euripean hiru edo lau hilabete behar ditu usteltzen. Banda magnetikoa dutenak oraindik askoz gehiago.




4.- PILAK

Nahiz eta kanpoko azala ehundaka urtetan usteldu, barruan dituen metal astunak inoiz ez dira usteltzen bai lurrazpian filtratu.

5.- ZIGARRO FILTROA

Eguzkitan, urte pare bat behar ditu usteltzen. Denbora hau behar du zelulosa azetotoak usteltzen.




6.- TXIKLEA

Txikle bat, goma, kolorante, etabarrez osaturik dago. Bost urtetan biguntasuna eta elastizitatea galtzen du baina usteltzeko ehundaka urte beharko dira.

7.- LATAK

Garagardo lata batek 10 urte behar ditu burni oxidoa bihurtzen. Aluminiozkoak denbora gehiago behar dute ur eta haideak ez bait du hainbeste erdoiltzen.




8.- PLASTIKOZKO BOTEILAK

Polietileno eta polikloruroz osaturik, izpi ultravioleten eraginez bakarrik desegiten da horretarako ehun eta mila arteko urtetako epea beharko lukeelarik.

9.- METXEROAK

Bi urtetan altzairua usteltzen hasten da baina plastikoak 200 urte inguru beharko ditu.




10.- AUTOEN OLIOA

Olioak ez dira inoiz usteltzen eta ikaragarriko ur pila kutsa dezake olio ttantta bakar batek.

**LEZOKO EKOLOGI
TALDEA**





HIZKERAZ MESEDEZ!!!

Lezo aldizkaria sortu zelarik, bere helburuen artean lezoar nortasuna eta izaera berreskuratzearena edo hauek bultzatzearena ageri zen nagusi. Helburu honi lotuz, gure nortasuna markatzen duen elementu nagusienari ere ailegatu zaio bere txanda, euskarari alegia, eta zehazkiago, Lezoko hizkera bereziari.

Jakin badakigu, herrian euskararen egoera larria dela benetan, euskararena oro har, baina asko eta asko ez gara konturatzen badela herrian kinka are larriagoan dagoen “beste euskara” bat, herri hizkera, Lezoko berezko hizkera. Zenbateraino ohartzen gara bada batzen eta aldi berean bereizten gaituen hizkera horretaz? Gure nortasunaren ezaugarrikerik agerikoena dela ba al dakigu? Nolakoa da? Zer kidetasun ditu ondoko herrietakoekin?


Egoera larri honen eragileak, herri hizkeraren kasuan bederenik, bi dira, biak ere arraz diferentek: Euskal Herriaren erdalduntze prozesuak eraginiko hizkuntza galtzea, bata —hau da dudarik gabe eragilerik nagusiena eta latzena— eta bereuskalduntze bidean, euskal komunikabideen alorrean eta abarretan erabiltzen den hizkuntza estandarrak eraginiko hizkuntz uniformizazioa, bestea. Egia ere bada, euskara salbatuko badugu ezinbestekoa dugula kultur-bultzatzaile eta herri-eraikitzaile izan den hizkuntza bateratu bat edukitzea.

Hau guzia ikusi ondoren garbi dago ateka estua gelditzen zaiola gure herri hizkerari eta berebat erokeria iduritu dakioke edonori, euskara hiltzorian dagoen honetan, lokalismotara bueltatzea eta indarrak beste bidean jarri beharrean honetan jartzea. Hurbilpen-lantxo honen asmoa ez da horratik euskara batuaren aurka joatea, ez eta arrazoi gabeko eztabaida antzuak sortzea ere. Lan honen xedea, herri hizkera bat badugula oroitaraztea da eta ahal den neurrian, guziok errealitate horretaz jabetzea. Ikastoletatik eta euskaltegietatik alfabetaturik ateratzen diren euskaldun osoei dagokie nolabaitere hizkera hori jasotzea eta iraunaraztea, gure hizkuntz-nortasunak bizirik iraun dezan.

Lezoko hizkera edo euskalkia nolakoa den edo zein den azaltzeko orduan historiari begiradatxo bat eman beharrean aurkitzen gara, daukagun hizkera ez delakoz ondoak bezala gauetik goizera sortu den gauza bat, oinarri eta eragile sakonagoak dituen elementu bat baizik.

Antzinako Euskal Herria, erromatar inperioko jakintsuen bitartez (Estrabon eta Plinio batez ere) iritsi zaizkigun berrien arabera behintzat, herri edo leinu ezberdinez osaturiko lurraldea zen. Bertan, baskoiak, barduliarrak, karistiarrak, autrigoiak, beroiak eta akitanarrak bizi zirela ikasi dugu. Leinu bakoitzak bere hizkera, bere eraketa modua, bere hiri nagusia eta abar zituela dirudi. Gaur egun mintzatzen diren euskalkien mugak bat datoz gutxi gora behera leinu bakoitzaren eremuarekin. Honela, autrigoien lurraldean bizkaiera zaharra eta K. Mitxelenak Meridionala esaten dion euskalkiak mintzatuko ziren behar bada,

egun euskara galdurik duten lurak dira. Karistiarren lurraldean berriz, bizkaiera dugu gaur egun, nahiz Araba aldeko zati haundi batean galdurik egon, lurralde hau, bere garaian, kostaldean Deba ibaitik Nerbioi ibairaino eta hegoaldetik Trebiñoko mendietaraino hedatuko litzateke. Barduliarren lurretan gaur egun gipuzkera aurkituko dugu, Oiartzun ibaiaren bokaletik mendebaldera Deba ibairaino eta hegoaldetik Ebro ibairaino, beraien lurretaraino. Baskoien lurraldeari dagokionez, gaur egun goi-nafarrera aurkituko dugu. Halarik ere, Pirinioaz bestaldera baskoien benetako zabalkundea zein izan zen ez bide dago erabat argi, Akitania deritzan lurraldean herri diferenteak bizi izan zirela uste bait da eta baskoiekin ahaidetasun nabariak zituzten herriak zirela ere badirudi. Dena den, Garazi inguruko lurretan baskoiak bizi izan zirela nahiko gauza garbia omen da eta bestalde ekialdeko euskalkiek goi-nafarrerarekin dituzten antzekotasunak ikusirik, nolabaiteko hurbiltasuna, ahaidetasuna ez bada, planteia daiteke puntu honetan.



Erromatarrek "Ager Vasconum" esaten zioten eremua erromanizatua izan zen eta euskararen alera azkarra gertatu zen "Saltus Vasconum" esaten ziotena, aldiz, gutti erromanizatua izan zela dirudi eta bertan euskara gorde zen. Baskoiak, egungo Nafarroa administratiboa ia osoan (mendebaldeko zenbait zatitan ezik) eta Oiartzun ibaiaren bokaletik ekialderantz bizi omen ziren, Plinioren esanetan. Hegoalderuntz beren eragina noraino iritsi zen ez dago ziur jakiterik, batzuen ustez Zaragoza eta Huescatik haratago.

Beraien kasua ezberdina da, ez da ziurra jatorri euskaldunekoak ziren ala ez, baskoiekin nahastu zirela dirudi.

Gure herrira itzuliz eta gure hizkeraren berri jakin nahian gabiltzalarik, Lezo non kokaturik dagoen kontuan izan behar dugu. Lezo, baskoien lurraldean kokaturik dago eta ondorioz baskoien hizkera zenaren ondorengoa darabil, egun goi-nafarrera esaten zaiona —eragin gaskoiak ahanzi gabe beti ere—. Zehazkiago esateko, esan dezagun ifarraldeko

goi-nafarrearen Gipuzkoako azpieuskalkian biltzen direnetako bat dela Lezoko euskalkia, Hondarribia, Arano, Oiartzun, Irun eta Goizuetakoarekin batera. Errenteria mugatiar gelditzen zaigu gipuzkera eta goinafarreraren artean bai eta Pasai Donibanekoa ere, beste berezitasun batzuk dituztelarik. Goi-nafarrera eta gipuzkera antzekoak izanik eta egun Gipuzkoak euskalgintzan duen "buruzagitza" gatik, goi-nafarreraren gipuzkeraren eragina nabaria da.

Besterik gabe, hemen doazkizue Lezoko aditz-sistimaren zenbait adibide-proposamen, gin dakizkiekeen zuzenketei eta kritikei zabalik noski. Barkatuko duzue behar adinako sakontasunaz eta seriotasunaz eginak ez badira.

Proposamena: LEZO

IZAN

<u>Orainaldia</u>		<u>Lehenaldia</u>
NI	- NAZ	NITZAN
HI	- YAZ	YITZAN/ (YITZANNEN)
HURA	- DA	ZEN
GU	- GEA (GA)	GIÑAN
ZU	- ZEA	ZIÑAN
ZUEK	- ZEAZTE - ZAZTE	ZIÑAZTEN
HAIEK	- DIE - DIA	ZIEN

—Lezoko/z/ txistukari frikari bizkar-albeolarea, ez da guziz bizkar-albeolarea, galbidean da eta apiko-albelolareruntz doan soinuaz ahoskatzen dugu, /s/ izatera iristen ez delarik.

—Sonanteak (l, n, r, (s), (m) # + z ⇔ tz

—Parentesi arteko adizkiak ere erabiltzen dira. Forma ez ziurrak, gutxiago erabiliak, ez berezkoak edo analogikoak dira.

* EDUN

Orainaldia

Lehenaldia

NIK	- DUT	NUN
HIK	- DUK / DUN	YUN - YUKEN / YUNEN
HARK	- DU	ZUN
GUK	- DUGU	GENUN
ZUK	- DUZU	ZENUN
ZUEK	- DUZUTE	ZENUTEN
HAIEK	- DUTE	ZUTEN

(Anitza)

NIK	- TTUT	NITTUN
HIK	- TTUK / TUN	TTUKEN / TTUNEN
HARK	- TTU	ZITTUN
GUK	- TTUGU	GENITTUN
ZUK	- TTUZU	ZENITTUN
ZUEK	- TTUZUTE	ZENITTUZTEN
HAIEK	- TTUZTE	ZITTUZTEN

D(U)ZU » * DZU » TZU

— Sonanteak # D(U)ZUTE » * DZUTE » TZUTE

(n,l,r)

(DU) ZU » TZU

(DU) ZUTE » TZUTE

Bi bideak dira gertagarri baina bigarrenak aukera gehiago ditu ene ustez, errazagoa da “DU” silaba osa galtzea kontsonante arteko “U” bokala baino.

— Bokalartereko (δ) erraz galtzen da. (d) » (δ) » 0

Laguntzailea NOR-NORI (NOR 3. pertsona denean)

(Bakarra)

Orainaldia

Lehenaldia


NERI	- ZAIT- ZATT	ZITZAITEN
HIRI	- ZAIK / ZAIN - ZAÑ	ZITZAIKEN / ZITZAÑEN
HARI	- ZAYO	ZITZAYON
GURI	- ZAIGU	ZITZAIGUN
ZURI	- ZAIZU	ZITZAIZUN
ZUEI	- ZAIZUTE	ZITZAIZUTEN
HAIEI	- ZAYOTE	ZITZAYOTEN

(Anitza)

NERI	- ZAIZKIT	ZITZAIZKITEN
HIRI	- ZAIZKIK / ZAIZKIÑ	ZITZAIZKIKEN / ZITZAIZKIÑEN
HARI	- ZAZKIYO - ZAIZKA	ZITZAIZKIYON - (ZITZAIZKAN)
GURI	- ZAIZKIGU	ZITZAIZKIGUN
ZURI	- ZAIZKIZU	ZITZAIZKIUN
ZUEI	- ZAIZKIZUTE	ZITZAIZKIZUTEN
HAIEI	- ZAIZKIYOTE	ZITZAIZKIYOTEN

— Sonanteak ≠ metatesia “tz” eta “z”ren artean. Zitzaieten ↔ Tzizaiten. Nahiko erregularki nor-nori 3. p. honetan.

- 3. pertsona anitzeko datiboa egiteko —OTE— txertatzen da. Gipuzkoako ekialdean, Lapurdin eta Nafarroa Beherean arrunta da erabilera hau.
- "IZ" "X". Zaizkit ↔ Zaxkit. Lezon oso erregularra da gertaera hau.



IFARRALDEKO GOI-NAFARRERA

JOXE LUIS AGIRRETXE

LEZOKO ALLERU MENDI TALDEA: 1893 - 1993

Cien años de montañismo patxanguero por nuestras cumbres

*“Las niñas bonitas de Lezo
cuando se van a dormir
dejan la puerta abierta
para que los del Allerru,
si quieren, puedan entrar”*

(Folklórico estrebillo de autobús
de aquellos tiempos, mejores)

Ehun urte pasa dira, dagoeneko, William de Lazonet markesak Aitzkorriara igotzeko Arantzazura antolatu zuen mikrobusetik. 1893. urteko otsailak 30ean, markesa eta beste 19 lagun lezoar Aitzkorriko gailurrera iritxi ziren eguerdiko 12.23tan.

Hau izan zen gero Allerru Mendi Taldea bezala ezagutuko zenaren lehen urratsa. Gertaera xeble hau ez zen, noski, ez usteen pasa. Prentsa mundialeko egunkari ospetsuenak bere lehen orrialdetan aditzera eman zuten:

- “Allerru’s boys on the Aitzkorri”. THE TIMES.
- “William de Lanzonet arrivé a la montagne de rouge coloré”. LE FIGARO.
- “ZORIONAC. Lezotarak cerutic urbillago” CERUCO ARGUIA
- “Grupo guipuzcoani di Lezzo a llegado a l’Aizkorri molto fresqui”. IL ROMANO.
- “Coca-Cola llega a la cima más alta de Gipuzcoa gracias a unos de Lezo”. TELE CINCO.
- “LEZO BANDA BATE JANDA PUNTA JOANDA”. EFE, ZIMBAWE.
- “Expedición española, con algún vasco que otro, llega al Aizcorri” EL ALCAZAR.

Arrakasta ez zen kirol aldetik bakarrik ikusi. Teknologikoki pauso aurrerakoi galanta ere eman zen. Okasio honetan probatu bai zen, primizia bezala, Txinan egindako lehen mikrobusa Txo-min BE-LIN-TXON gidariaren eskutik (Gero Lezon geratu zen bizitzen eta... beno, hau beste kontu bat da).

Geroztik, eta ehun urte hauen bitartean, ALLERRU mendi taldeak hamaika mila irteera antolatu ditu Euskal Herriko mendietatik zehar lezoarren artean mendiarekiko zaletasuna hedatzen.

Euskadiko mendi guztiak igo dituzte lezoarrak, Pirineotara ere txangoak antolatu izan dira... Talde bezala ALLERRU patxanguero xamarra izan bada ere, bertako partaide askok beste enpresa gogorragoetan ere parte hartu izan dute beste lurraldetako expeditioekin. Jendearen memoria pixka bat argitzeko, hara hor zenbait datu ikusgarri:

1897: Expedición murciana BOTIJO III. al CERDO TORRE. Participantes: Lorenzo Rebollo, Manuel Cerezo, Enrique Brea, y JEXUX ETXEBESTE SALABERRIA TA SUKALDIAREBAI (Lezo).

1903: Expedición británica PIKOLIN al JIDEN PIK (Himalaya): John Smith, George Harrison, Sean Connery y JOXE URDANETA SALABERRIA (Lezo).

1927: Expedición italo-española al PETRETXEMA: Jesús Ozores, Franco Batiato, Alberto Rubio e IÑAKI SALABERRIA SALABERRIA (Lezo).

1974: TXIMIST expedizioa EVEREST: JOXE SALABERRIA, MIGUEL LARREA, MARTIN URRESTARAZU, JERONIMO BURUTARAN, XELES GARMENDIA eta FELIPE ARANBURUK 70 butano bonbona eta 200 botila ardo igo zituzten Campo Basetik 8.500 metrotaraino. Gero erretiratu egin ziren.

Baina hauek lezoarren mendi ausardia pixka bat besterik adierazten ez duten datu isolatu batzuk bakarrik dira. Gehiago ezagutu nahi izan ezker 100. urtemuga honen ospakizunerako "Allerrukoak mendietatik zehar 100 urte" argitaratu den liburuan eskuratu daitezke. (Liburu hau estankotan saltzen ari da oso prezio onean) Baina... goazen Allerrura, han bai dago JOXEPO BERGARA datorren igandeko irteeran antolatzen.

— Epa, Joxepo!

Barkatu bain Joxepo aldizkari honetako beste artikulo baten galderak erantzuten ari da. Ea zer dioen...

— ...eee, bueenoooo, baai. Baa Aralarrea joan giñen mayuan... Nola da mayo euskerez?

— Maiatza...

— ... maiatza, eta juniyuan San Donaton izan giñen eta, orain, juliyuan, zea guaz... estoo, ...kartela ya jarriya do, zea, Aranotik Hernanira trabesian edo joateko.

— Bale, milesker...

— Bale.

Orain bai, gu sartzen gera.

— Epa Joxepo!

— Epa!

— Bueno, hi, urte honetan 100 urteen ospakizuna dela eta oso fuerte ari zarete, ezta?

— Bai, hori ari nintzaion esaten honi. Maiatzian Aralarrea joan giñela ta gero, juniyuan, San Donatoa eta...

— Ba, bai, bai, hori dena bazekiagu. Baina jendea, zer, jendea animatzen al da?

— Beitzak, las cosas claras. Gero ta jende gehiago jua, merkio. Entinde? Oseake, animo! Oso ondo pazten da ta. Bestela joan den jendeari galdetu.

— Zer esango zenioke zuk hau irakurtzen ari den haurrari. Mendian hasi nahi duen haurrari...

— Olentzeroi botak eskatzeko.

— Ezer gehiago?

— Ba... ezkerrekua ezkerran eta eskubikoa eskubian jartzeko konfunditu gabe.


— Eskerrik asko, Joxepo.

— Bale... aio! Ah! Tori! Eta hau ere publikatu.

Joxepo Bergarak mendi irteera hauetarako behar den materialaren marrazki bat eman digu.

— Bueno, kabitzen bada...

IMPRESINDIBOL MOUNTAIN VESTUARY AND EQUIPMENT (Pyrenaica, 1963)



- 1: Motxila "ALTUS" (Para tallas más medianas se recomienda una "BAJUS") Se sugiere llenar hasta arriba de cosas que no sirven para escarmentar para la siguiente excursión.
- 2: Aislante-enrollable doble uso (Para aislarse o hacer amigos)
- 3: Cantimplora de agua "OASIS" (Si va llena, mejor)
- 4: Distintivo abertzale (Versión pegata o bordado) para tener sitio en los refugios de Iparralde.
- 5: Manoplas de lana tipo "LATXA". Más áspera pero más económica.
- 6: Bota de vino marca "SATO". (Llevar cápsula de recambio en la motxila).
- 7: Piolet-bastón "MAKILA". (Se acosenja el modelo Mandatario).
- 8: Pantalón mahón tipo "LANGILE" o de txandal con bragueta DELKRO.
- 9: Gorrito de monte xalau, de colores vivos.
- 10: Pompón. (A la hora de comprar su gorra de montañero, exija el pompón. Un gorro de monte sin pompón no es un gorro de monte. Recuérdelo).
- 11: Anorak del tipo "SIRIMIRI", de esos que sudas un montón y encima te mojas. (Con el tiempo ya te comprarás uno de Gore Tex. Animo!)
- 12: Botas de tipo "DOBLE" (Aunque te cueste algo más, compra las dos porque está comprobado que con una sola bota se sufre mucho).
- 13: Crampones "HINCA HINCA" de 12 dientes o más. (Si los compras en DENTACLON te regalan un cepillo, un tubo de Licor del Polo y unos alicates para apretar la ortodoncia).
- 14: Pegatina de NAFARROA OINEZ 87 que no se puede quitar ni con alcohol.
- 15: Cartera con carnet de federado, NAN, Kajero Kutxa, foto chavala, nota supermercau y papelito con dirección para enviar objetos personales y motxila en caso de no regresar uno.
- 16: Petaca tipo "XIPI" para llevar patxaran. (De celebrado uso en el autobus de vuelta).
- 17: Puntos de sutura "JOSI" (Llevar ya puestos para no andar luego con historias)
- 18: Tirita "APOSITUS". (Lo mismo).
- 19: Gafas "BEO BEO" modelo Marraketx o Casablanca. En condiciones de luz muy extremas, llevar unas "IKUSI MAKUSI", de soldar.
- 20: Fundas protectoras dentales de acero galvanizado tipo "AGARRAPIÑE" (Solo para principiantes).
- 21: Y, por último, bufanda de la Real o del Athletic, según afición. Imprescindible en las salidas dominicales.

Bueno, ba, bai... Joxepok eman diguna kabitu da.

Bukatzeko, zorionak eta animo gaur egun Allerruko mendi taldea bultzatzen ari diren guztiei eta... beste 100 urte pasa arte. Orduan ere zuekin izango gaituzue antzeko zerbaitekin, hots, 200. urtemuga.

William de Lazonet-ek burua altxatuko balu, arro sentituko zen lezoarrak beren markesaren inizatiba jatorraren jarraipena ikusiaz.


Ezetz?

*“Los niños bonitos de Lezo
cuando se van a dormir
cierran la puerta con llave
porque las del Allerru
son capaces de cualquier cosa”*

(Esta, me la he inventado)

MIKEL SUSPERREGI





BIZKAIA ES UN BELLO JARDIN (Con cariño)

Llevo unos días preocupado por el cuestionario que me ha llegado desde Bilbao (o sea, El Bocho) para que lo rellene y vea en qué categoría de ciudadano me encuadran (de ciudadano bizkaino, claro).

Tengo que reconocer que durante toda mi vida he sido un "giputxi" provinciano normal, es decir, un bizkaino de vete tú a saber qué categoría, con ganas de hacer méritos para llegar a ser, un buen día, bizkaino a carta cabal. Por supuesto, ya sé que todos conocéis las ventajas que esto me traería en cuanto a prestigio, reducción de impuestos, acceso a puestos de trabajo considerados como "chollos", y también, según dicen, mejores posibilidades allá donde todo el mundo va después de muerto, además de acceso gratis a museos, polideportivos y Metro. Además, mis dos hijos pequeños me hicieron una "mani" en el pasillo de casa, con una pancarta en la que se leía: "Aita, de mayores, queremos ser bizkainos de primera".

Es por eso que, hace un mes, y por mediación de un vecino de Durango con el que entablé amistad en los tiempos de la "mili", pude solicitar el cuestionario a rellenar para intentar subir de categoría y codearme con la "gente de bien" como Dios y Sabino mandan.

En cuanto abrí el sobre que contenía los papeles a rellenar, me quedé helado con la hoja nº 1, que especifica las categorías de bizkainos; jamás hubiera pensado que hilasen con tanta precisión. Para los que no las conozcáis, ahí van las categorías ordenadas.

- 1) Bizkaino Bilbaino de Bilbao.
- 2) Bizkaino Bilbaino de Bizkaia.
- 3) Giputxi del Oeste.
- 4) Giputxi del Este.
- 5) Alavés.
- 6) Extranjero Rico del Norte, preferentemente alemán o inglés)
- 7) Extranjero Rico del Sur.
- 8) Maketo.
- 9) Gitano.
- 10) Extranjero pobre (es igual que sea del Norte o del Sur).

Repuesto de la primera impresión, continué hojeando el resto de los papeles, que dan la impresión de que estos tipos quieren saber más de mi vida que yo mismo. No me detendré explicándoos todos estos datos; lo que sí voy a contaros es el contenido de la hoja nº 29, que es la última, y que viene a indicar las pruebas finales que hay que pasar (algo así como los trabajos de Hércules), antes de que puedan darte el tan deseado premio. Fijáos bien en lo que me exigen.

- a) Tener los primeros 32 apellidos vascos, y por lo menos, 16 de ellos bizkainos.
- b) Pasar una semana de supervivencia en las Encartaciones, con una patata y 2 botellas de chacolí gorri de Bakio. (La patata la ponen ellos, y el chacolí corre a mi cuenta).
- c) Comer 3 kilos de bacalao al pil-pil en 20 minutos.
- d) Cantar sin parar y durante una hora, canciones de "Los Bocheros".
- e) Presentar 15 bizkainos de 1ª categoría, como avalistas, que certifiquen que soy de fiar.
- f) Una carta de recomendación firmada por la virgen de Begoña.

Como podéis ver, no es moco de pavo lo que me piden; sin embargo, después de algunas gestiones que he realizado, no preveo ninguna dificultad excesiva para superar todas las pruebas, excepto la de los apellidos. Aquí es donde tengo el problema, y es por eso que escribo esta carta para ver si alguno de vosotros puede echarme una mano. De todos es sabido que nosotros, los giputxis, no tenemos árbol genealógico; a todo lo más que algunos llegamos es a tener helecho genealógico. Yo conozco mis 8 primeros apellidos, pero, desgraciadamente, mis abuelos eran de la zona de Aia (a eso se le llama tener poco fundamento) y sus apellidos no me sirven para bizkainear.

Para los otros 24 apellidos, tengo más margen de maniobra. Si alguien con ascendencia bizkaina quiere emparentarse conmigo, le quedaré eternamente agradecido, además de invitarle a comer angulas hasta que reviente. Espero vuestra ayuda.

!Ah!, y al tipo que me llamó ayer por teléfono diciendo que me denunciará porque en una excursión de hace unos años me oyó cantar el "Txuri-uridin maitea" (nadie es perfecto), le pido que tenga consideración conmigo, pues podría echar al traste todos mis esfuerzos. Cruzo los dedos y hasta otra.

ANTONIO MARI




“ALLERRUKO AMONAK SUA PIZTU DU!”

Garai urrutiko urte galduetan ba omen zegoen Lezo izeneko herri ttikian artzai franko. Haietako bat, Joxe-Iñaxio —Eguzkibizkar— baserrikoa dugu. Joxe Iñaxiok ez zuen ardi askorik, berrehun bat besterik ez, baina hala ere, artzaintzatik ateratzen zituen bere bizimodu apala aurrera eramanez ahal izateko behar zituen xoxa urriak. Jaizkibel mendian barrena ibiltzen zen bere artaldean eramanez, beti aiheka batetik bestera larre egokien bila. Gure artzai gaztea oso zoriontsu bizi zen, baina zenbaitetan gaueko aldean gehienbat, ardi pare bat lapurtzen zioten, eta hortik zetorkion kezka haundia, hilean behin ostu egiten baitzioten, eta hura ez zen martxa noski!


Behin, abuztuko arratse batean, hamarrak aldean, Endara baserriko neska gazte, polit eta liraina ikusi zuen bere artaldeari begira. Neska ez zen handik mugitzen, begira eta begira ari bait zen. Joxe Iñaxiok ez zekin nora edo nori begiratzen zion. Berari ote?, edo artaldeari? Ederra zen benetan Endarako neska hura! Joxe Iñaxiok neskari begiratu zion, eta nahigabean bien begiradak elkarrekin topatu ziren. Hura pirpira Joxe Iñaxiok bere bihotzean sumatu zuena!

Hurrengo goizean, gure artzai gaztea esnatu zenean, eta eguneroko ohiturari jarraituz, ardiak kontatzeari ekin zion. Eta hara, berriro beste bi falta zitzaizkiola! Hura pena! Berehalaxe Endarako neskaren oroimena etorri zitzaion burura, eta gehiago pentsatu gabe Endarako atarira bertaratu zen. Han neskarengatik galdetu bezain pronto aurrera atera zitzaion. Arrapaladan, Joxe Iñaxiok bere presentziaren zergatia azaldu zion neskaren nigar malkoak sortaraziz. Neskaren nigarrak Endarako jauna erakarri zuen eta gertatuaren berri



Ixtorio hau Lezoko lurraldean gertatu zen duela urte luze, egia eta leienda nahasten diren garai zahar haietan.

*Endarako
neskatil hura
arrant eder
eta liraina
zen.*



edukitzean, bertatik bidali zuen gure Joxe Iñaxio karraxi eta birauen artean: Alde hemendik Eguzkibizkarreko seme bilaba!


Igaro ziren egunak, eta gertatua erdi ahazturik zegoenean, beste bi ardi lapurtu zizkioten berriro ere gure artzai gizajoari. Joxe Iñaxiok —egoskor— makila hartu zuen, eta Endarako bidean ipini zen. Baserritik hurbil zegoenean, neska bistatu zuen erreka ondoan, etxeke gobara egiten ari zelarik. Gehiegi pentsatu gabe neskarengana abiatu zen. Neska ez zen izutu mutilaren presentziaz, eta gertatua jakin zuenean honela mintzo zen: —Joxe Iñaxio, ni ez nauzu bilatzen ari zaren lapurra. Badirudi hilero, lehenengo ilargi betearekin kaxkoa berotzen zaizula edo! —Orduan konturatu zen gure artzaia hilero, lehendabiziko ilargi betean ostu egiten ziotela.

Bai Joxe Iñaxio eta bai Eider —honela deitzen baitzen Endarako neskatila— berriketan hasi ziren, eta hurrengo hileko lehenengo ilargi beterako egin zuten akordioa. Hitzarmen honi jaramon eginez, hurrengo hilean, Ilargi Amandrea zeru ilunean bete betea agertu zenean, Joxe Iñaxio eta Eider izkutatu egin ziren Eguzkibizkarrekoaren ardi artean. Gauerdian, Lezoko Santo Kristoren baselizako kanpaiak ordua jo zuenean, amonatxo zahar bat azaldu zen, eta gure bi gazteen usairik hartu gabe, bi ardi aukeratu, soka motzean lotu eta eraman nahi zituen. Une hartan, bi gazteak altxatu ziren, eta beren haserre bizia erakutsi zioten. —Ez al dizu lotsarik ematen, horren zaharra eta horren lapurra? —aurpegiratu zioten.

— Ez gaizki pentsa, Allerruko Amona nauzue eta hilero bi ardi behar izaten ditut jateko, bestela, nire ahizpak urteetan zehar hil diren moduan hilko bait naiz ni ere!

— Eta horregatik zabilta lapurrerian?

— Bai, bestela nondik jan eta nondik bizi!



*Endarako
Jaunak,
alabaren
nigarrak
aditurik,
karraxi eta
biranen
artean bidali
zuen artzaia.*

— Jaizkibeleko beste amonak, zure ahizpak oso famatuak izan ziren gure artean, mesede haundiak egiten zizkigutelako: euri ona legorte garaietan, kazkabarra itsasorantz desbideratu, gaitzak urrutira bidali,... eta makina honelakoak. Baina zuk noiz laguntzen diguzu?

— Oraindino inoiz, baina hilero bi ardi ematen badizkidazue, ekaitza Lezoko lurretara hurbiltzen denean, sua egingo dut Allerru mendixkaren gailurrean zuei abisatzeko. Honela jakin ahal izango duzue enbata noiz hurbiltzen zaizuen.

Amonaren burutazioa asko gustatu zitzaenez, hilero Eguzkibizkar eta Endarako ateetan ardi bana uzten zuten lehenengo ilargi beteko gauetan. Urteak igaro ziren, Joxe Iñaxio eta Eider Lezoko Santo Kristoren elizatzuan ezkondu ziren... eta beren ondorengoen artean ohitura honek bizi bizirik iraun zuen urte luzeetan. Gaur ez da promesa hau betetzen, tradizioa galduta baitago, baina hala eta guztiz ere, Allerruko Amonak sua pizten du enbata Lezo aldera hurbiltzen den bakoitzean. Eta honela gaur egun, Gaintxurizketako baserri-tarrek honela esaten dute enbata doakiela ikusterakoan: ALLERRUKO AMONAK SUA PIZTU DU!!!

KARLOX BARRENTSORO



ERREGAAREN ALABA ETA DRAGOIA

Orain dela hogeit hamar urte Aitzgorri mendian ba omen zen gaztelu bat. Han errege bat eta bere alaba bizi ziren. Egun batean erregeak neskatxa herriko ferira bidali zuen erosketak egitera. Baina neskatxa bidean galdu egin zen eta kobazulo batetara iritsi zen. Orduan dragoi bat ateratu zen eta neska harrapatu zuen. Dragoiak esan zion:

— Hemendik ateratu nahi baduzu hiru frogak bete beharko dituzu.

Neskatxak beldurturik honela esan zion:

— Ongi da. Betezko ditut hiru frogak horiek.

Orduan dragoiak gela estu eta itxi batetara eramatu zuen eta esan zion:

— Lehenengo frogak, sumendi barrura sartu eta urrezko hegoak ekarri behar dituzu.

Neskatxa beldurturik joan zen baina tanta bat erori ondoren, lore batek esan zion:

— Hartu balde bat eta bete urez; gero bota sumendira eta hegoak etorriko zaizu.

Neskek halaxe egin zuen eta dragoiak bigarren frogak betetzeko esan zion:

— Joan zaitez lakuaren sakonera eta ekarri ahatearen gorputza eta oinak.


Neskek laku bidean lehen aurkitutako loreak ikusi zuen eta esan zion loreak:

— Errepikatu nik esaten ditudan hitzak majikak hauek “Ahate oinak lotu ahate gorputzari, ahate gorputza edan ur guzti hori, ahate hegoak lotu ahate gorputzari”.

Gero, neska ahatearen gainean joan zen dragoiarengana baina hirugarren frogak bete aurretik ahateak dragoiari ura bota zion eta dragoiak hil egin zen.

Hau gertatu ondoren, neska gaztelura joan zen eta oso pozik bizi izan ziren.

AMAIA LEUNDA
9 URTE



POETA IZAN NAHI

Doinua: Amurizaren Euskal Herritik Aparte...

1

Poeta izan nahi nuke,
baina badut nahiko neke.
Hitzek balio gutxi daukate,
saltzen dira merke.
Ispirazioen eske,
nabil aspaldi jo ta ke.
Poesi beltza egin ezean,
zer egin daiteke?

2

Nigarrez dakust mundua,
badu zertaz samindua.
Deaburikan luziferrenez,
bai dago zaindua.
Badauka nork agindua,
kargak ezin arindua.
Dirua Jainko den bitartean,
indarra Saindua.

3

Gorrotoa beti adi,
maitasuna aldiz nagi.
Laguntza errez ukatzen zaio,
lagun hurkoari.
esanez —hor konpon hadi,
ezina ba daukak-n sari—.
Sentimentuen kutxa bihurtu,
dugu suge kabi.

4

Anairik ezin extima,
ahaztu dugu katexima.
Geure burua baizik ez dugu,
maite zer lastima!!!
Bizkarra nori arrima,
lotsa gabeei hau grima!!!.
Bihotzik ezak saldu arazi,
bait digu arima.

5

Osatzen gara endredoz,
errez aldatuaz "kredoz".
Ezin daiteke gehiegi fida,
zenbait aho beroz...
Mundua bete da eroz.
Zentzu gabeko bezeroz.
Ekologia saldu dugu ta,
kutsadura eros...

6

Arraina nola ezkatuz,
gizona jantzi ezpatuz.
Harro sentituz indarkeriak,
duen arrakastaz.
Ez dakit nolako pastaz,
eginak gauden gu "kastaz".
Itxaropena hiltzeko ere,
ginateke kapaz.

7

Mireesten dugu "ordena"
nori zor zaio lorpena?
Demokrazien diktaduraz gaur,
sarri datorrena.
Juztiziari gorenena,
lapur ttikia kondena.
lotsa bera da lotsaren lotsez,
lotsez dagoena.

8

Hainbat negar eta antsi,
dagoenik ezin ahantzi.
Giza balorez bilustu gara,
piztienaz jantzi.
Bekaizkeriaren untzi,
elkartasun oina suntsi.
Etsipen beltzen super merkatuz,
poz dendak irentsi.

9

Gaueko izar eztiak,
txorien goiz abestiak.
Gozamenezko pitxi zituen,
gogo amestiak.
Ilargi ta eguzkiak,
egun sentiko izpiak.
Goibeltasunen islada zaizkit,
bilaka guztiak.

10

Bizkarrean dudan zama,
luma harturik lan arma.
Nola goratu izadi eta,
ortzearen xarma?
Tristuraz ezin dut asma,
saiatu arren ai ama!!!.
Poeta izan nahi eta ezin,
horra nire "drama"!!!

XANTI ZABALA
"Lexo"

Oharra Bertso hauek, 1991-ko Hernaniko "Joxe Legarreta" Sariaren lehiaketan, irabaztun suertatu ziren.

KOSTAKO TRUMOYAREN BERTSUAK

JUAN JOSE
SARASOLAK
JARRIAK

1

Emeretzireun eta amalau
urte ziranian juanta,
Ogei gisaldi konpletatzeko
larogei eta sei falta,
Jesús jayo zan ezkerozkuak
asko dira lurak jota
bizi geranak sentitzen degu
pertzekusiyo galanta.

2

Itsasotikan trumoyak eta
mendi gañeko lañubak,
alkar jotzian asarretuta
egin dizkigun dañuak,
belarri danak gortutzeraño
txori gastuen doñuak,
mundu guztiya ikaratzten du
ekusten eztan soñuak.

3

Aize guztiyak borrokatuta
ondoreneko ekaitza,
kaskabarrezko laño mordua
dirudiyela arkaitza,
botatzen duben amenazua
samiña eta zikoitza,
ankaz aurrera eramaten du
deskuidatzen dan bakoitza.

4

Trumoi adar bat nabarbendu da
bendabaletik nortera,
bizi diranak gogoratzeko
larogei eta sei urtera,
beti gañian nai gendukenak
lenago guaz lurpera,
semejantza bat tristiagorik
ez dator gure artera.

5

Destierroko balle tristera
zertara geran bialtzen,
juiziyuaren antza degunak
ez aldakigu igartzen,
seme alabak nola gabiltza
arpegi illuna jartzen,
onbestarikan egin gabeko
aitaren biziya galtzen.

6

Iñork ekusten ez duena da
goitik datorren erdera,
lur ikara ta kanpo guziya,
izutzen duen dardara,
mundu ontako artzayak baño
zintzuagua or bada,
ardi galduak biltzen dijua
bakoitzak bere bordara.

7

Trumoi soñuak baño lenago
aurretik tximista argiña,
kontu artzalle ona degula
au da señaile garbiya,
biyak batian abiyatuta
lendabiziko guardiya,
zertaraño dan erakustera
bere miserikordiya.

8

Estranjeroko lur trikaratan
begira zer da pasatu,
ondo zeudenak galdu zituen,
lotan zeudenak esnatu,
kastigo ori zertarako dan
guk nola ondo juzgatu,
abillaguak arritzen dira
ezin dutela asmatu.

9


Pentsatzen gaude xinistaturik
ayetan zenbat kalte den,
gurutziaren siñali ori
gauza biarra ote den
derrepenteko argitasuna
jakiñik nola maite den,
estadu txarrik ekusi gake
egin dezagun aitaren.

10

Ixildu gabe dabillen orrek
badaukat nundik etena,
protestante ta juduak ere
errespetatzen dutena,
zeñek beria goguan artu
askok esan diratena,
ez algenduke fiyatu biar
guziyok jabe batena?

11

Gure odola sosegatzen da
denboraliak ontzera,
uda partian lasai oituak
neguan gatoz trantzera,
gauza guziyak zure eskutik
dabilkizuna nuntzera,
ipar garbiya bialdu zazu
oreya beltzak kentzera.



12

Kojuruaren kontra badira
zenbait tentaziyo klase,
egarri txarra sartu zitzaigun
oraindik ez gera ase,
goibel triste au klaratu arte
egunak dijuaz luze,
Santa Barbara ora pro nobis
Jesus, Maria eta Jose

Bertso hauek 1932an argitaratu
ziran BERTSOLARIYA aldizkarian

ERITZI ARTIKULOAK

* Oporraldia dela eta badirudi Lezon ez dagoela arazorik. "Hala bedi" Bego horrela urte luzez.

* *Al parecer, como estamos en época de vacaciones, no hay problemas en Lezo. "Que sigamos así mucho tiempo".*

OHARRA

Eritzi artikuloetan argitaratu behar duen idazlan orok idazlearen izen-abizenak eta N.A.N. zenbakia igorri beharko dizkigu.

Todo aquel que quiera ver publicado su artículo de opinión deberá facilitarnos nombre y apellidos junto con el número de D.N.I.

LEZO ALDIZKARIARI BURUZKO INKESTA

1) IRAKURTZEN AL DUZU LEZO ALDIZKARIA? BAI EZ

¿Lees la revista LEZO? Si No

ZERGATIK?.....

¿Por qué?.....

2) ZER IRAKURTZEN DUZU GUSTOEN?

¿Qué lees más a gusto?

ALDIZKARI OSOA HISTORIA KULTURA GIZARTEA SAIOA
La revista entera

EKOLOGIA IPUIAK POESIA BERTSOAK GOGOKO DUDANA
Lo que me gusta

3) ZER IRUDITZEN ZAIZU ALDIZKARIA?

¿Qué opinión te merece la revista?

ESKASA ARRUNTA ABERATSA BESTERIK

Pobre Normal Prolija Otros

ZER IRUDITZEN ZAIZU ALDIZKARIAREN ITXURA?

¿Qué te parece la presentación de la revista?

NEURRIA TXIKIA HAUNDIA LODIA MEHEA

Tamaño Pequeño Grande Grueso Delgado

HIZKIEN NEURRIA TXIKIEGIA HAUNDIEGIA

Tamaño de letra Demasiado pequeño Grande

AZALA POLITA ITXUSIA JARRAITU ALDATU

Portada bonita Fea Seguir Cambiar

4) ZER GEHIAGO ERANTSIKO ZENIOKE ALDIZKARIARI?

¿Qué le añadirías a la revista?

5) ALDIZKARIAN LAGUNDUKO AL ZENUKE? BAI EZ NOLA

¿Colaborarías en la revista? Si No ¿Cómo?

6) IRADOKIZUNAK:

¿Sugerencias?.....

ADINA / Edad:

sexua: G V E M

EUSKALDUNA ALFABETATUA: BAI EZ Castellano parlante

INKESTA HONEN BITARTEZ ZUK, IRAKURLE, LEZO ALDIZKARIAZ DUZUN IRITZIA EZA-GUTU NAHI DUGU GERO IRAKURLEEI HORREN BERRI EMATEKO ETA HONELA GUZION ARTEKO HAUSNARKETA BULTZATU HERRI ALDIZKARI HONEN INGURUAN.

INKESTA BETETAKOAN GURI BIDAL DIEZAGUKEZU POSTAZ (OROITZENE AEK EUSKALTEGIA —LEZO ALDIZKARIA— DONIBANE KALEA 12, LEZO) EDO HERRIKO ELKARTE, TABERNA, DENDA ETA UDAL BULEGOETAN JARRIKO DITUGUN KUTXATAN UTZI AZAROAREN 30A BAINO LEHEN. ALDEZ AURRETIK MILA ESKER.

Mediante esta encuesta pretendemos conocer vuestra opinión sobre la revista LEZO y poder dar a conocer los resultados a todos los lectores. De este modo podremos reflexionar entre todos sobre el futuro de esta revista popular.

Una vez rellenada la encuesta puedes hacernosla llegar por correo (Oroitzen AEK Euskaltegia —Lezo Aldizkaria— Donibane Kalea 12, Lezo) o bien depositándola en los buzones que vamos a colocar en distintas entidades, comercios, bares y oficinas municipales antes del 30 de noviembre. Un saludo.

